



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**


Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2023ko apirila

---

# 1950-1970EKO ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKOA ALTZAN

---



**Ikerketa-taldea: Belen Uranga, Asier Basurto, Paula Laita**

**Soziolinguistika Klusterra**

Martin Ugalde Kultur Parkea

20140 Andoain

943 592 556

<https://soziolinguistika.eus/eu/>

[kluster@soziolinguistika.eus](mailto:kluster@soziolinguistika.eus)

2023ko apirila

1	SARRERA .....	4
2	MIGRAZIO-MUGIMENDUA ALTZAN 1950-1970 HAMARKADETAN.....	5
2.1	Euskal Autonomia Erkidegoko testuingurua.....	5
2.2	Altzako migrazio-prozesua.....	7
3	IMMIGRAZIOAREN INTEGRAZIO SOZIALA ETA SOZIOLINGUISTIKOA. Azterketa- markoa .....	10
3.1	Migrazioaren jatorria, prozesuaren abiapuntua .....	10
3.2	Integrazio sozialaren faseak.....	11
3.3	Integrazio sozialaren piramidea.....	12
3.4	Integrazio soziolinguistikoa.....	14
3.5	Migrazio mugimenduak eta hizkuntza-komunitate minorizatuaren bizindar etnolinguistikoa .....	16
4	METODOLOGIA .....	19
4.1	Ikerketa kualitatiboa.....	19
4.2	Kasu-azterketa.....	20
4.3	Datuen bilketarako teknikak .....	20
4.4	Lagina.....	22
4.5	Datuen kudeaketa eta analisisa .....	23
4.6	Triangulazio-metodoa .....	24
5	IKERKETAREN EMAITZAK .....	25
5.1	Migrazio-prozesuaren abiapuntua .....	25
5.2	Lan-integrazioa .....	27
5.3	Integrazio soziala .....	28
5.4	Integrazio kulturala .....	29
5.4.1	Etorkinen identitatea, jatorriarekiko harremanak eta bilakaera.....	29
5.4.2	Etorkinen iritsierak eragindako sentimenduak eta jarrerak.....	31
5.5	Integrazio soziolinguistikoa.....	32
5.5.1	Euskararen presentzia, irudia eta jarrerak .....	33
5.5.2	Euskararen balioa.....	36
5.5.3	Gatazka linguistikoa .....	40
5.5.4	Euskararen ikasketa .....	42
5.5.5	Euskararen aldeko mugimendua.....	44
5.5.6	Hizkuntza-politikaz .....	45
5.5.7	Gaur egungo egoera eta etorkizun ikuspegia .....	47

6	ONDORIOAK ETA ZENBAIT IRAKASPEN .....	50
6.1	Zenbait ondorio altzako 1950-1970eko migrazioaz .....	51
6.2	Gaur egungo immigrazioaren aurrean zenbait irakaspen.....	56
	ERANSKINA. Elkarrizketarako gidoiak.....	59
	Erreferentzia bibliografikoak.....	62

## 1 SARRERA

Dokumentu honetan Soziolinguistika Klusterrak Donostiako Udalaren eskariz egindako ikerketaren emaitzak aurkezten dira. 2022ko maiatza eta 2023ko apirila artean garatutako proiektuak gaur egun Donostiako Ekialdeko Barrutia bezala definitzen den eremura 1950-1970 urteetan migratutako biztanleriaren esperientzia linguistikoa aztertu du.

Nolanahi ere, argitu nahi dugu ikerketaren abiapuntutik proiektuaren dimentsioak behartu duela ikerketa-taldea azterketa eskura ziren baldintzetara egokitzea. Horrela, Ekialdeko Barrutiko eremu osoko datuak aztertzeke zailtasunak sortu direnez, azterketa Altzara zedarritu da. Hala ere, ikertzaile-taldearen iritziz, egindako azterketa baliagarria da Barruti osoan gertatu denaren inguruan argia emateko eta etorkizunari begira praktika interesgarriak proposatu eta bideratzeko.

Ikerketaren helburuak, zehazki, honela definitu dira:

- 1950-1970 urte inguruan Espainiako Estatuko beste lurralde batzuetatik Donostiako Ekialdeko barrutira bizi izatera etorritakoen hizkuntzarekiko esperientziak ezagutzea. Zehazki, Altzako biztanleriaren bizipenak, iritziak eta jarrerak aztertzea.
- Ezagutza horrek gaur egungo migrazioetan euskararen presentzia handitzeko izan dezakeen aplikazioa aztertzea.

Helburu horiek lortzeko, 16 lagunekin elkarrizketa sakonak egin ditugu eta beste sei lagunekin eztabaida-talde bat osatu dugu, metodologia atalean zehatzago azalduko den moduan.

Dokumentu honen sarreraren ondoren, bigarren atalean, aztergai dugun migrazio-mugimenduaren testuinguru zabalari erreferentzia egingo zaio, EAEko eta Altzako prozesua kokatzeko garrantzizkoak diren zenbait datu kontuan har daitezten. Hirugarren atalean, immigrazio soziala eta soziolinguistikoaren marko teorikoaren inguruko ideia nagusiak azalduko dira, ikerketaren arrazoibideak nondik nora joango diren ulertzeko lagungarri izan daitezten. Laugarren atalean, ikerketaren metodologia azalduko da, eta, ondoren, bosgarrenean, ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira. Azkenik, seigarren atalean, ikerketak emandako ondorio nagusiak laburbilduko dira,

batez ere, immigrazio fenomeno berriaren aurrean jasotako irakaspen nagusiak zein izan daitezkeen erreparatzeko. Modu horretan, ikerketaren bigarren helburuari erantzuteko aukera izango dugu.

## 2 MIGRAZIO-MUGIMENDUA ALTZAN 1950-1970 HAMARKADETAN

Atal honetan, aztergai den migrazio-prozesua bere testuinguru historiko, sozial eta demografikoan jarri nahi izan da, hain zuzen, jakina delako, fenomeno ez zela gertakari isolatua izan, baizik eta, Euskal Herrian, eta garai hartan bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan, gertatu zen prozesu zabalago batean adibide esanguratsua. Horregatik, ondoren, EAEko migrazioaren inguruko oinarritzko datu batzuk eta Altzakoari buruzko informazio gutxieneko bat eskainiko da.

### 2.1 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TESTUINGURUA

Altzan XX. mendeko erdialdetik aurrera gertaturiko immigrazio-fenomenoa ez da gertaera isolatua izan. Aitzitik, mende hasieratik industrializazioaren ondorioz zetorren prozesuaren indartzearen isla izan zen, batez ere, Bizkaian eta Gipuzkoan gauzatu zena.

Datuek erakusten dutenez, 1950eko hamarkadatik eta, batez ere, 1960ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herriak biztanle kopuruaren igoera handia izan zuen. Zehazki, hazkunde ekonomikoarekin batera, hazkunde demografikoa gertatu zen. Gipuzkoan 1950etik 1970era, esate baterako, % 27,88koa izan zen demografia-hazkundera (Zabalo et al. 2010b, 15).

Prozesu migratzaile oso indartsua gertatu zen 1973ko krisi ekonomikoak eragina izan zuen arte. Zabalok eta bestek diotenez "1973an Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 47 immigrazioaren oinordeko zen, maila batean edo bestean. Etorkin gehienek lan banaketaren maila baxuenetan jardun zuten, eta auzune berrietan batu zituzten". (Zabalo et al. 2010b, 18). Garrantzizkoa da datu hori gertakari horren isla zuzena baita Altzan gertaturikoa, ondoren azalduko den moduan. Gogoratu behar da, prozesu horrek eten garrantzizko bat izan zuela ondoren (1975tik hasi eta 1980ko

hamarkadan), batez ere 1973ko *Petrolioaren krisiaren* eraginez, biztanleriaren egoera demografiko eta ekonomikoan eragin zuzena izan zuena.

Halere, 1986an esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 30 inguru etorkinak ziren (Ruiz Olabuénaga y Blanco, 1994:149). Iturri berberari jarraiki esan behar da migratzaileak gertu dauden probintzietatik etorri zirela hasiera batean (Burgos, Kantabria eta Errioxa, batez ere), ondoren, Gaztela eta Leongo gainerako probintzietatik, eta geroxeago urrutien dauden Galiziatik, Extremaduratik edo Andaluziatik (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994:125). Gainera, etorkin gehienak, landa-eremuetatik etorriak, hiriguneetan kontzentratu ziren, industria indartsuko eskulanaren eskariak eta migrazio-prozesuetan hain garrantzitsuak diren beste etorkin batzuek ezarritako sare sozialek erakarrita. (Iraola, Mateos, eta Zabalo 2011, 116–17). Hala dio era berean Aierdik ere, alegia, landa-eremutik hiriguneetara mugitutako biztanleria izan zela, laborariak izatetik soldatapeko langileak izatera igaro zirela, eta hiri-kulturan murgildu behar izan zutela (Aierdi Urraza 2000).

Nabarmendu behar da migrazio-prozesu hori aztertu duten ikertzaileek ondorio nagusi bat azpimarratu dutela: 1950 eta 1980 urteen artean Euskal Herrira iritsi ziren etorkinek integrazio-maila handia lortu zuten. Hori erakusten dute bai praktika sozialen azterketek (Aierdi, 1993), bai ikuspegi politikotik, euskal boto abertzalearen banaketak (Garmendia et al., 1982) eta, baita, ikuspuntu historikotik egindako azterketek ere (Fusi, 1984:253). Ondorio orokor hori ateratzen dute baita Iraola, Mateos eta Zabalo ikertzaileek ere:

---

*Pertsona horiek euskal gizartean sartuta daudela uste dute. Hori kontuan hartuta, lehen urteak ez dira iristen, agian espero zitekeen bezain negatiboak, eta ez da bidegabekeria-  
edo kexa-sentimendurik sumatzen jasotako tratuagatik. Jatorriagatik irainak  
deskribatzen direnean (maketoa eta korearra ziren erabilitako mespretxuzko  
terminoetako batzuk), berehala erlatibizatzen dute, denbora gutxiz izan zela esanez,  
haurren kontuak zirela, etab. [...] Gainera, esan behar da, oro har, arrakastaz garatu  
den migrazio-ibilbideaz ari garela: iritsi ziren gehienek beren helburua lortu zuten (lan  
hobea, bizitza hobea), eta, gainera, gizarte-igoeraren itxaropenak bete zituzten, beren  
pertsonegan ez bazen, bai seme-alabengan*

(Iraola, Mateos, eta Zabalo 2011, 121)

Era berean, ikertzaileek nabarmentzen dute etorkinen eta bertakoen arteko kultur arteko harremana aztertzerakoan ez dela talka esanguratsurik gertatu:

*Etorkin horiek ez dira konturatzen inolako kultura-talkaren protagonista izan direnik, eta horrek adierazten digu euskara ez jakitea ez dela oztopo izan eroso egoteko, baita udalerrri hartzailea nagusiki euskalduna zenean ere.*

*(Iraola, Mateos, eta Zabalo 2011, 127)*

Ikerketa honetan, beraz, aztertu da Altzan integrazio-prozesu horren sendotasuna, eta prozesuan etorkinen eta bertakoen arteko balizko talken nolakotasuna.

## 2.2 ALTZAKO MIGRAZIO-PROZESUA

Altzak XX. mende erditik aurrera immigrazioaren ondoriozko biztanleria berriaren hazkunde oso azkarra bizi izan zuen. Altzako Historia Mintegiko Cañamero ikertzaileak adierazten duen moduan, 10 urteko tartean (1950-1960), bikoiztu egin zen bertako populazioa (Cañamero Redondo 1988a, 62), eta 20 urtean (1950-1970) ia laukoiztu. Urte horietan hasi eta 1986 urte bitartean biztanleria etengabe hazi zen, ez hain modu azeleratuan, baina etengabe. Aipagarria da, nolahi ere, 1986. urtean 1950ean zuen biztanleriaren halako bost zela Altzan bizi zen populazioa.

### 1. Taula. Altzako bilakaera demografikoa XX mendean

<b>1900</b>	<b>2.103</b>
<b>1910</b>	2.683
<b>1920</b>	4.005
<b>1930</b>	5.425
<b>1940</b>	7.224
<b>1950</b>	8.857
<b>1960</b>	16.413
<b>1970</b>	32.531
<b>1975</b>	38.718
<b>1981</b>	42.765
<b>1986</b>	44.384

*Iturria: Cañamero Redondo 1988*

Altzak urte horietan izandako hazkunde demografikoak ez du parekorik izan inguruko herrietan. Izan ere, Donostian, Lezon eta Hernanin, esate baterako, biztanleriaren egonkortzea gertatu zen 1975tik aurrera; eta jaitsiera Errenterian eta Pasaian (Cañamero Redondo 1988a, 63), ziur asko, 1973ko krisiaren eraginez. Beraz, Altzako hazkundeak Donostiako biztanlerian duen pisua nabarmen handitzea ekarri zuen;



1986 urtean hiriko populazio osoaren % 24,6 zen altzatarra. 1940. urtean, Donostiak Altxa udalerrria bere auzo bezala bereganatu zuenean, Altxako populazioa soilik % 6,9ko pisua zuen hiriburuaren biztanlerian. Agerian geratzen da aldaketa horrek Altxaren ezaugarrietan aldaketa nabarmenak ekarri zituela.

Etorkinen jatorriari dagokionean aipatu behar da Altxako 1950-1970 urteetako migrazioetako populazioaren jatorri-lurralde nagusiak (jaio ziren lurraldeak) honako hauek izan zirela: Gipuzkoa, Nafarroa, A Coruña, Pontevedra, Salamanca eta Caceres. Horietan jaiotakoek Altxako biztanle guztien % 27 osatzen dute. Eta migrazioaren kronologiari dagokionean, badirudi lehenago heldu zirela Nafarroa, Burgos, Palentzia, Valladolid, eta Errioxatik, eta ondoren, 1960tik aurrera Salamanca, Caceres, Badajoz, A Coruña eta Pontevedratik (Cañamero Redondo 1988a, 64)<sup>1</sup>.

Eremu horretako immigrazio-prozesuaren inguruan beste ikertzaile batzuek adierazi izan dute "Alza-Intxaurrondo-Herrera barrutietan bertoko populazioa baino populazio immigrantearen ehuneko handiagoa dagoela (immigrante modura hartzen dira bai Gipuzkoako beste udalerrri batzuetatik etorritakoak bai beste probintzia batzuetatik etorritakoak ere). Gainera, Alza-Intxaurrondo-Herrera barruti horretan Galiziatik eta Extremaduratik etorritako pertsona-talde asko pilatu zirela nabarmentzen da". (Hernando Pérez 2018, 177)

Altxako euskararen egoera historikoari buruz, azpimarratu behar da ez dugula aukerarik jakiteko zehazki zein zen Altxako inguruetako biztanleriaren euskaldunen proportzioa 1981ean EAEko lehen zentsuan euskararen inguruko datuak jaso ziren arte. Eta, data horretan jasotako datuek dagoeneko immigrazio horren ondorioak agerian zeuden. Cañamero soziologoak lehen zentsuko datu horiek aztertuz, ondorioztatu zuen Altxako 14 urtez gaindiko populazioaren % 6,2 zela euskara ondo ezagutzen zuena (Cañamero Redondo 1988b, 92). Ikertzaile horrek iritzi dionari jarraiki adierazgarria da Donostian % 22koa izanda euskaldunen proportzioa, Ekialdeko Barrutiko eremu desberdinak kontuan hartuta, euskararen inolako ezagutzarik gabeko populazioa Intxaurrondon, Herreran, Bidebietan eta Sarruetan

---

<sup>1</sup> Altxako hiri bilakaeraren eta datu demografikoaren inguruko zehaztasunak kontsulta daitezke Altxako Historia Mintegiak argitaratutako dokumentuak, bereziki Antonio Cañamero Redondok egindako artikulua. Ikus <https://altzanet.eus/index.php/eu/>

kokatzen dela. Aldiz, Altzagainan jaso ziren barrutiko euskararen ezagutzaren ehuneko altuenak: populazioaren % 13 (Cañamero Redondo 1988b, 92).

Auzoan izandako aldaketak handiak izan zirenaren erakusgarri eta galdutakoaren pena irudikatzen duen bertako bizilagun baten lekukotasun xalo batekin amaiera ematen diogu kokapen atal honi:

---

*Beste pena bat daukat barrenean oroitzen naizen bakoitzean. Larratxo baserriaren ondoan iturri eder bat zegoen putzua lurraren nibelean. Askotan edan genduan bertatik. Etxeak egiten asi ziranean erre kara sartu zuten iturri ori. Udalde batean goiko soroan agertu zan nundik zetorren. Larratxo bailara ori egin zanean bururatu bazan ur ori goiko soroan ondo artuta jarri izan bazan plazaren erdian zeinek juzgatu ze balio zeukan gaur, bertan edateko eta, batez ere, udara partean jendea ugari izango zan ontzia artuta eta ur bila jetxiko zana. Gaur urak balio dunakin ze etrokizuna [sic] sartu zuten lurpean!. Pena ori nerekin eramango det!. Orra Larratxoko berriak jarri iñork irakurri nai badu.*

*(Barandiaran 1988, 18)*

---

## **3 IMMIGRAZIOAREN INTEGRAZIO SOZIALA ETA SOZIOLINGUISTIKOA. AZTERKETA- MARKOA**

Etorkinen bizipen linguistikoaren azterketa egiteko ezinbestekoa da begirada zabaltzea bizipen horiek harrera-gizartean izan duten integrazioaren bilakaeran kokatzeko, zehazkiago, integrazio soziolinguistikoa zer-nolakoa izan den ulertzen saiatzeko, betiere, kontuan izanda, integrazio horretan parte hartzen dutela, halaber, etorkinak eurak eta harrera-gizartea bera.

Era berean, etorkinen integrazioaren konfigurazioan jatorriarekiko duten harremana afektiboa edo identitarioak ere eragin zuzena izan dezake harrera-komunitatean bertakotze-prozesuan. Beraz, atal honetan, marko horren inguruko oinarritzko informazioa alde batetik, eta integrazio sozial eta soziolinguistikoaren oinarritzko kontzeptuak azalduko dira, inguru horretan aztertuko baititugu parte-hartzaileen bizipenak.

### **3.1 MIGRAZIOAREN JATORRIA, PROZESUAREN ABIAPUNTUA**

Badira teoria desberdinak momentu zehatzetan estatuen arteko migrazio mugimendu zabalen jatorria azaltzen dutenak. Horien artean nagusienez fokua jartzen dute norbanako askoren mugimendu eta norbanako horien erabakietan, betiere, estatu desberdinen artean dagoen soldata-arrakalaren eraginez eta ikuspegi neoklasikotik begiratuta. Moreno Fernándezek aipatzen duenez, migrazioaren teoria berriak jatorrizko lurraldeetako lan-merkatuaren funtzionamendu eskasari ematen dio garrantzia, alegia, erabakia familia migratzaileak eta bere inguruak hartzen duela iritzi dio. Beste batzuek aipatzen dute mugimendu migratzaileak nazioarteko joera bati erantzuten dietela. Ikerketa honek, nahiz eta estatu barruko migrazio-mugimenduez aritu, Moreno Fernandez soziologoari jarraitu dio, eta aintzat hartu du migratzaileen prozesua honako egoeratan sortzen dela: jatorrizko lurraldeetako lan-baldintza prekarioetatik, segurtasun fisiko edo juridiko gabeziako egoera gogorretatik edo ezegonkortasun politiko eta ekonomikotik urruntzeko aukera edo etorkizunerako itzaropena eraikitzea ahalbidetzen dien oinarritzko segurtasunaren pertzepzioa. (Moreno Fernández 2009, 135).

Aierdi soziologoak, bere aldetik, migrazioaren jatorria arrazoi ekonomikoetan kokatzen du, nahiz eta migratzaileek, sarri, arrazoi pertsonaletan zentratzen duten euren kontakizuna. Mugimendu horiek sareetan garatzen dira; lehen migratzailea familiartekoren edo herritarren bat izanik, ondoren, gainerakoak mugitzera gonbidatzen ditu. Sare arrakastatsu horiek mugitzen dituzte ondorengo migratzaileak. Horrek, errazten du lehen faseko helduera, baina era berean, harrera-gizarteko harremanen beharra mugatzen du (Aierdi Urza 2000).

Ikerketa honetan, beraz, jakinik integrazio-prozesua gertakari dinamikoa dela, hau da, etorkinen eta harrera-gizartearen arteko harremanetan oinarritzen dela, zer-nolako jarrerak garatu diren ere aztertu da.

### 3.2 INTEGRAZIO SOZIALAREN FASEAK


Zenbait ikertzailek adierazten duten bezala, biztanleria migratzailearen integrazioa zertan datzan zehaztea ez da eginkizun erraza. Oro har, migratzaileak harrera-gizartean barneratze-prozesuari esaten zaio integrazioa, baina agerikoa denez, barneratze horrek oso modu desberdinak har ditzake, hitz berarekin errealitate eta xede desberdinak irudikatu baitaitezke. Horrela, batzuetan integrazioa asimilazioaren sinonimotzat jotzen da, askotan kutsu ezkorra hartuta ere; eta besteetan, aldiz, integrazioak kutsu irekiagoa hartzen du, eta alde biko harreman eta onarpen batekin lotu ohi da (Zabalo et al. 2010a, 13).

Nolanahi ere, soziologia klasikoak adierazten duenez, integrazio soziala gerta dadin migratu den biztanleriaren eta harrera-gizartearen artean balioen partekatzea, eta, harreman sozioekonomikoen interdependentzia gertatu behar da (Abercrombie, Hill, eta Turner 1986). Alegia, espero izatekoa da integrazioaren prozesuak talde sozial desberdinek komunitate baten barruan balioak partekatzea eta interdependentzia-harremanak ezartzea ahalbidetuko duela (Moreno Fernández 2009, 131). Era berean, esan daiteke integrazio soziala ezaugarri desberdineko lau gai hauek barne-biltzen dituen prozesua dela: 1) etorkinen eta bertako komunitateko kideen arteko kontaktua; 2) elkarren arteko konpetentzia, 3) egoera berriarekiko egokitzapena, eta, 4) asimilazio soziala (Moreno Fernández 2009, 132).

### 3.3 INTEGRAZIO SOZIALAREN PIRAMIDEA

Aipaturiko ezaugarri horiek kontuan hartzekoak izanik ere, ikerketa honetan lehenetsiko den marko teorikoa Moreno Fernández soziologoak *Migrazioaren teoriaren* arabera, proposatu duen *Integrazio sozialaren piramidearen* eredua aintzat hartuko da (Moreno Fernández 2009, 133). Ondorengo da aipaturiko piramidearen eskema:

#### 1. Irudia: Integrazio-prozesuaren piramidea



*Iturria: (Moreno Fernández 2009, 133)*

Teoria horren arabera, integrazio soziala ondorengo faseak betetzearekin batera gertatzen da.

- **0. maila. Biziraupeneko integrazioa.** Harrera-gizartera edota xede-lurraldera heltzerakoan migratzaileek bizi duten egoerari egiten dio erreferentzia integrazio-maila horrek. Aurreikus daitekeen bezala, fase hori migratzaileek dituzten baliabide ekonomiko, sozial eta humanoek baldintzatzen dute. Beraz, biziraupeneko integrazioa oinarrizko betebeharrak asetzeko gaitasunaren arabera izango da (Moreno Fernández 2009, 132).
- **1. maila. Integrazio laborala edota eskolakoa.** Migrazioaren teoriak jatorrizko herrialdeetako merkatuen funtzionamendu eskasean aurkitzen ditu migrazioen kausak, hau da, iritzi dio lan-merkatu hobeari bila jartzen dela abian migrazio-prozesua, migratzailearen familiaren baitan hartzen dela

erabakia eta, beraz, emigrazioaren ondorio positiboen zuzeneko onuradun bihurtzen dela (Moreno Fernández 2009, 134). Maila horretan, migratzaileak aurreko faseko betebeharrak ase dituela esan nahi du (hots, bizirauteko integrazio-fasea gaindituta duela), eta heldu-gizartean lana eta funtzio sozialak betetzeko gai dela. Era berean, kasuan-kasu, haurrak dauden egoeretan hezkuntza-sistema formalera integratzeko gaitasuna edota baliabideak dituztela.

- **2. maila. Integrazio soziala** garatu dadin interakzio sozialak aktibatu behar dira halabeharrez; horien intentsitateak eragin zuzena du etorkinen gizarteratze-prozesuan. Kasu honetan, denboran aurrera joan ahala gertatzen den integrazioaz ari gara, eta norbanako edo taldekide modura harrera-gizartean parte hartzearekin du lotura. Aztergai dena da etorkinen eta harrera-taldeko biztanleen artean zer nolako harreman sozialak gertatzen diren, hots, bertan zer-nolako bizitza soziala gertatzen den. Esan gabe doa, integrazio sozialak ahalbidetu behar duela etorkinen nortasun eta bizitza soziala garatzea eta aberastea (Moreno Fernández 2009, 132–33).
  - Izan ere, etorkinen eta bertakoen arteko kontaktu horietan sortzen diren jarrerak funtsezkoak dira integrazioaren eraikuntza-prozesuan; atzerritar migratzailearen kasuetan aztertu ohi den moduan, prozesu horrek izan ditzakeen ondorioetako bi xenofobia eta tolerantzia dira. Lehena, atzerritar jatorriko biztanleen eta haien ohituren aurkako kritika eta ekintza da, eta arrazakeria du adierazpenik muturrekoena; bigarrena, interesatzen zaigun testuinguruan, atzerritar jatorriko biztanleen eta haien ohituren aldeko onarpena eta ekintza da (Moreno Fernández 2009, 135 – 36). Aztertu beharko litzateke, kasu honetan, estatu barneko migrazioen testuinguru honetan nola gauzatzen diren joera horiek.
- **3. maila. Identitate-integrazioak** harreman sozial konplexuak sortzen ditu etorkinen eta bertako komunitateko kideen artean eta prozesuaren garapenean migratzaileak bere nortasuna sortzen du, bere lekua egiten du harrera-gizartean. Halere, nortasun hori garatzeak ez du esan nahi etorkin guztiek identitate berdina garatzen dutenik, egoiliar guztiek identitate berbera ez duten moduan. Esate baterako, migratzaileek oso ezaugarri desberdineko

integrazio identitarioa gara dezakete egoiliar bihurturik, adibidez, jatorrikoarekiko harremanak gordetzen, aldatzen edo alboratzen dituztenaren arabera.

Aipatu behar da fase horiek oso baliagarriak direla migrazio-mugimenduak jomuga duten harrera-gizarteak demografikoki, ekonomikoki, kulturalki eta politikoki hegemonikoak diren testuingurutan. Alegia, harrera-gizartean komunitate hegemoniko argiak diren kasuetan. Aztertuko dugun kasuan, fenomeno horri erantsiko diogu, gainera, etorkinen integrazio soziolinguistikoaren gaia, alegia, nola gertatu zen, aldi berean, izaera oso konplexua duen hizkuntzen arteko egokitzapena.

### 3.4 INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKOA

Migrazio mugimenduak abian jartzeko orduan hizkuntzaren aldagaiak ez du beti garrantzi bera hartzen. Sarritan, migratzaileek jatorritik ezinbestean atera behar dutenean ez diote begiratzen harrera-herriko hizkuntza-egoerari, baina, aukera izanez gero, aintzat hartuko dute xede-lurraldean hitz egiten diren hizkuntzen errepertorioa. Edonola ere, esan daiteke jatorrizko lurraldeko eta xede-gizarteko hizkuntza-egoerek baldintzatu egiten dutela harrera-lurraldeko gizarteratzea. Beraz, migrazioa eta hizkuntza elkarrekin doazen aldagaiak dira, eta, esan bezala, aukera dagoenean hizkuntzak markatzen du (edo hizkuntzek markatzen dute) xede-lurraldearen hautua (Moreno Fernández 2009, 139). Ikuspegi horretatik, ezinbestekoa da aldagai hori aztertzea ulertu nahi denean nolakoa izan zen Altzan gertaturiko integrazio sozial eta soziolinguistikoa.

Oro har, migrazioaren fenomenoaren testuinguruan hizkuntzekiko harremana aztertzerakoan honako gaiak aintzat hartu behar dira: 1) harrera-lurraldean hizkuntza bakarra edo gehiago dauden (hizkuntza errepertorioa), 2) hizkuntza bakarrekoa den kasuetan, aldaera bat baino gehiago erabiltzen diren, 3) etorkinek hizkuntza nagusia (edo aldaera nagusia) hitz egiten duten eta 4) etorkinek hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dituzten (Moreno Fernández 2009, 141).

Alabaina, horiez gain, garrantzia du honako hauek ere kontuan izatea: 1) etorkinen jatorrizko hizkuntza ospe handikoa edo txikikoa den, 2) etorkinek harrera-lurraldean hizkuntza bat baino gehiago dagoen kasuetan hizkuntza hegemonikoa ezagutzen duten, 3) xede-gizartean hizkuntza minoritarioa baldin badago hizkuntza hori

ezagutzearen ondorio sozialak, eta 4) etorkinen lehen hizkuntza xede-lurraldean erabiltzea dituen ondorioak. (Moreno Fernández 2009, 139).

Aldagai horiek guztiak kontuan hartu dira, beraz, ikerketa honetan. Integrazio soziolinguistikoa lantzen ari garena, funtsean, arestian azaldutako integrazio sozialerako baldintzetan hizkuntzaren aldagaiak hartzen duen lekua da. Alegia, integrazio sozialaren lau faseko prozesuan (0. Biziraupenerako integrazioa; 1. Integrazio laborala edo eskolakoa; 2. Integrazio soziala; 3. Identitate-integrazioa) hizkuntzaren gaiak -egoera linguistikoak- hartzen duen lekua.

Immigrazio soziolinguistikoa gerta dadin migrantearen integrazio-prozesua erraztu behar da, hots, harrera-gizarteak prozesu hori ahalbidetu behar du, esaterako, bertako hizkuntza ikastera lagunduz eta horretarako bitartekoak jarritz. Hori da, bistan denez, integrazioaz hitz egiten denean, maiz erabiltzen den ikuspegia, baina ez da bakarra.

Horrela, bigarren adiera baten arabera, integrazioa etorkinak eta harrera-gizarteak burutu beharreko alde biko prozesua da. Hau da, migratua hartzen duen gizarteak berak, etorkina bertara egokitzeko erraztasunak eskaintzeaz gain, aldaketarako prestutasuna agertu behar du, jarrera aktibo eta irekia izan behar du. Horrek, ezinbestean, etorkinaren ezaugarrien nolabaiteko onarpena eskatzen du, kulturaren arloan, esaterako. Laburki aipatutako integrazioaren bi ikuskera horiek kontrajarriak izan daitezke edo, aitzitik, diskurtso mailako banaketa formalera mugatu daitezke (Zabalo et al. 2010a, 13).

Aztertu dugun prozesuan, beraz, integrazio sozialaren ikuspegia neurri batean moldatu dugu. Izan ere, ikerketa honetan testuinguru orokorra ahanzi gabe, fokua jarri da hizkuntza-komunitatearen ikuspegitik gertaturiko integrazio soziolinguistikoaren garapenean; arreta bereziarekin begiratu zaie honako alderdi hauei: 1) harrera-gizartea (Altzako biztanleria), demografikoki hiruzpalau aldiz hazi zen migrazioaren eraginez, 2.) harrera-gizartea ekonomikoki ez zen ahalmen bereziki handiagokoa, harreman ekonomikoak auzo horretatik gaindi zeudenak izan baitziren, 3) kultura soziala antzekoak zituzten (balioak, errepresioaren aurreko jarrerak), eta, batez ere, 4) hizkuntzaren aldetik, hizkuntza hegemonikoa partekatzen zuten arren, bazegoen bertan hizkuntza minoritarioa hitz egiten zuen komunitatea. Beraz, Altzan



immigrazioa jaso zuen komunitateak, hizkuntza-komunitate minorizatuak barne, aldaketa sakonak esperimentatu zituen.

### 3.5 MIGRAZIO MUGIMENDUAK ETA HIZKUNTZA-KOMUNITATE MINORIZATUAREN BIZINDAR ETNOLINGUISTIKOA

Beraz, kontuan izanda atertzen ari garen testuinguruko harrera-gizartean hizkuntza nagusi eta ofizial bakarraz gain, bertan, hizkuntza-komunitate gutxitua ere bazegoela, ezinbestekoa da migrazioaren integrazio-prozesua hizkuntza-komunitate horren bizindarraren ikuspegitik aztertzea. Izan ere, denbora-tarte laburrean gertaturiko dimentsio handiko migrazio-mugimenduek sakonki baldintzatzen dute lurralde jakin bateko hizkuntza-komunitatearen bizindarra. Hala adierazten du Giles, Bouhris eta Taylor-ek garatu zuten *Hizkuntza-komunitatearen bizindar etnolinguistikoaren* teoriak (Giles et al. 1977). Proposamen horren arabera, hizkuntza-komunitatearen bizindarra hizkuntza horrek duen *estatusak, balio demografikoak eta babes instituzionalak* zedarritzen dute (Giles et al. 1977, 309). Beraz, integrazio soziolinguistikoaz aritzerakoan interesgarria da hiru aldagai horiek parez pare jartzea, biztanleria migratzailearen aldetik egoera konplexua eta biztanleria egoiliarak osatzen zuten hizkuntza-komunitatearen (era berean) konplexuaren aldetik ere.

Teoria horren arabera, jatorrizko hizkuntza erreperitorioa eta harrera-gizartean dagoenaren arteko harremanak zutabeak dira. Hizkuntzen estatusa, balio demografikoak eta babes instituzionalaren garapenak integrazio soziolinguistikoa eta hizkuntza-komunitateen indarra baldintzatuko dute. Aztertzen ari garen kasu honetan, etorkinen hizkuntza erreperitorioa gaztelaniak eta, zenbait kasutan, galegoak osatzen zuten. Eta harrera-gizartean gaztelania eta euskararen egoera eta euskararen bizindar linguistikoa hartu dira kontuan.

Azpimarratu behar da, ordea, ikerketa honen dimentsioak ez duela baimentzen bi erreperitorio linguistiko horien azterketa osoa egitea. Horrela, kontuan izan da etorkinek harrera-gizarteko hizkuntza nagusia edo hegemonikoa hitz egiten zutela Altzara heldu ziren garaian; "Hizkuntza ofiziala berea duen gizarte-eremu batera iristen da, bertan hizkuntza minoritario bat baitago ia beti alde batera utz dezakeena, eta, horren aurrean, jatorrizko hiztun gehienen antzeko jarrera ideologikoa eta

operatiboa har dezake, norberaren antzeko egoeran daudenak<sup>2</sup>” (Ruiz Olabuenaga eta Blanco 1994, 35).

Horrez gain, horietako askok bigarren hizkuntza bat ere hitz egiten zutela, galegoa, jatorrian egoera minorizatuan egon arren (babes ofizialaren estatusik ez izatearen ondorioz), demografikoki oso indartsua, eta bizindar etnolinguistiko oso markatua duen komunitateko hizkuntza.

Harrera-gizartean, bere aldetik, gaztelaniaren nagusitasun erabatekoak hizkuntza minorizatua den euskararen bizindarra higatzen hasia zuen dagoeneko migrazio-mugimenduaren hasierarako (galegoaren modura euskarak ere babes ofizialaren gabeziak eta komunitate modura bizitako errepresioak eragin zuzena izan zuen). Nolanahi ere, migrazioak urte gutxitan bereziki eragin zion. Bizindarraren teoriak hala dio migrazio mugimenduen indarrari dagokionean:

*“Immigrazio ereduak talde linguistiko baten bizitasuna areagotu edo gutxitu dezakeen beste faktore bat dira. Esate baterako, talde linguistiko baten kopuru handien sarrerak beste bat zenbakiz gaindi dezake planifikatutako edo planifikatu gabeko immigrazioaren bidez. [...] Hizkuntza-taldeak ageriko edo ezkutuan lehian dauden eremu batean mugitzen diren migratzaileak prest daude (ageriko arrazoi ekonomikoengatik) menpeko hizkuntza-taldearena baino menderatzaileen hizkuntza eta kultura hartzeko. [...] Zentzu honetan, migratzaileen taldeak maiz mehatxu gisa agertzen dira taldeen arteko testuinguruan etorkizun kolektiboa kolokan duten talde linguistikoentzat. [...] Migratzaileek menpeko talde linguistiko bat sendotzen lagundu dezakete bertan asimilatuz, edo ahultzen lagundu dezakete talde linguistiko nagusira asimilatuz.*

*(Giles et al. 1977, 314–15)<sup>3</sup>*

<sup>2</sup> Llega a un espacio social en el que la lengua oficial es la suya, porque en él coexiste una lengua minoritaria de la que puede prescindir casi siempre, y frente a la que puede adoptar una posición ideológica y operativa similar a la de la mayoría de los nativos, que se encuentran en situación semejante a la suya propia. (Ruiz Olabuenaga eta Blanco 1994, 35). Itzulpena geurea.

<sup>3</sup> Immigration patterns are another factor which may enhance or decrease the vitality of a linguistic group. For instance, the influx of large numbers of one linguistic group may swamp another numerically through planned or unplanned immigration [...] Migrants who move in an area where linguistic groups are in overt or covert competition appear to be willing (for obvious economic reasons) to adopt the language and culture of the dominant rather than that

Ikuspegi horretatik aztertu dugu, beraz, migratzaileek izandako integrazio soziolinguistikoa eta harrera-gizarteko hizkuntza-komunitatearen egokitzapena.

---

of the subordinate linguistic group. [...] In this sense, migrants groups often appear as a threat to linguistic groups whose collective future is in jeopardy in the intergroup context. [...] Migrants can either contribute to the strengthening of a linguistic subordinate group by assimilating into it, or they can contribute to its weakening by assimilating into the linguistic dominant group. (Giles et al. 1977, 314–15). Testuaren euskarazko itzulpena geurea.

## 4 METODOLOGIA

### 4.1 IKERKETA KUALITATIBOA

Ikerketa honetan metodologia kualitatiboa erabili da parte-hartzaileen pertzepzioak eta arrazoiak modu sakonean aztertzeko (Mayan 2009). Metodologia kualitatiboa honako kasuetan erabiltzen da nagusiki: – Gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko (...) eta gertakari edo gai baten garapenean (eboluzioan) sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko, sormen-lana bultzatzeko eta taldekako hausnarketa sustatzeko (Hernández García 2010, 294–95). Metodo honen bitartez, Altzako migratzaile eta bertakoei eragiten dioten faktore sozialen artikulazio konplexuak eta arrazoi historiko, politiko eta sozioekonomikoen analisia egin da (Barriga 2015),(Silva-Corvalán 2001) eta euskararekiko duten jarrera aztertu da. Beraz, ikerketa kualitatiboa izanik, lan honek ulermena eta interpretazioa ditu helburu nagusi, subjektibotasuna antzemateko esperientzia pertsonalak eta sentimenduak kontuan hartu dira.

Ikerketa guztietan bezala, eta kualitatiboan batez ere (ikerketa mota honen subjektibotasun maila kontuan hartuta), garrantzitsua da ikerketa printzipioei jarraitzea emaitza ahalik eta fidagarrienak lortzeko asmoz (Potts eta Brown 2005, 269). Kasu honetan, zorrotzasun zientifikoa bermatzeko erabili ditugun irizpideak honako hauek dira: informazioa modu sakonean aztertzea, datuei eta emaitzei buruzko ikuspegi kritikoa garatzea eta sinesgarritasuna eta baieztapena bermatzea. Horrez gain, Altzako 1950-70 migrazioari buruzko ikuspegi eta bizipen desberdinak barne hartzen dituen laginketa esanguratsua hautatu da. Bildutako datuak triangulatzeko metodoen konbinazioa erabili da eta datuen fidagarritasuna ebaluatzeko edota datu ulergaitzak murrizteko taldean lan egin da. Horrela, prozesuan ateratako informazioaren kontrasteak eta gaiaren inguruan lehenago argitaratu den literaturaren azterketa sakonak bermatu dute ikerketaren emaitza zorrotza izatea.

## 4.2 KASU-AZTERKETA

Ikerketa kasu-azterketa bat izan da. Kasu-azterketen moduek "garbi islatzen dituzte azterketa-mota hori antzeko azterketetatik desberdintzen duten berezitasunak, idiosinkrasia eta zehaztapen lokalak" (Bujan Vidales 2001, 134). Errealitate bat ere aztertzen dute, baina errealitate hori osatzen duten gatazka egoerak, arazoak, bizipenak aintzat hartuta. Parte-hartzaileen rola berezia da; jakintza modu kolektibo batean sortzen da, hau da, parte-hartzen duten kide guztiak ikerketan parte-hartzaileak dira; ikertzaileak ere, parte-hartzaileak jotzen dira, momentu desberdinetan proiektuan zehar jarraipena egitean. Kasu azterketek malgutasuna ere eskatzen dute, ikerketaren prozesuan zehar aldagaiak, ekintzak, parte-hartzaileak, eta ikerketaren bidea birdiseinatzen joaten delako proiektuaren momentuko beharrei erantzuteko. Bestalde, kasu-azterketan isilpekotasuna bermatu behar da; leku konkretu bateko pertsonak, elkarteak, erakundeak... inplikaturik daudenez, tentuz jaso eta kudeatu behar da ateratako informazioa. Eta azkenik, ikerketa mota honek sortutako jakintzaren eskuragarritasuna bultzatu behar da, eta emaitzen hedapena erraztu behar da (Bujan Vidales 2001, 134).

## 4.3 DATUEN BILKETARAKO TEKNIKAK

Ikerketa-teknika gisa erdi-bideratutako elkarrizketak erabili dira nagusiki (14 elkarrizketa). Horrez gain, eztabaida-taldea edo *focus group* bat ere antolatu da, talde jakin batean, informazioaren bilketarako.

Ikerketa-teknika hau "baliagarria da haien interpretazio pertsonala ezagutzeko eta baita haiek emandako iritziak jasotzeko ere" (Bujan Vidales 2001, 136).

Esan behar da elkarrizketa sakona gizarte-zientzietako hainbat diziplinatan oso hedatua dagoen teknika dela, besteak beste, soziologian eta antropologian. Hernándezek dionez "Bi subjektuen arteko aurrez aurreko interakzioa da, bata ikertzailea eta bestea elkarrizketatua. Oinarrian komunikazio-egoera bat da eta emaitza positiboak lortzeko komunikaziorako bideak, eta estrategiak zein baldintzak garatu behar dira elkarrizketari loturiko zeregin guztietan zehar" (Hernández García 2010, 302).

Elkarrizketa guztiak audioz grabatu dira, eta gero, transkribatu egin dira. Datu Pertsonalak Babesteko legedia betez. Gainera, parte-hartzaileei grabaketarako baimena eskatu zitzairen. Dokumentu horretan proiektuaren xedea aipatzen zen, baita testigantzak kudeatzeko modua eta grabazioen erabilera posibleak ere.

Erdi-bideratutako elkarrizketak gidatzeko, aldeztatik prestatutako gidoi bat erabili da. Dokumentu horretan solasaldirako proposatutako gaiak jaso dira; helburua izan da elkarrizketa bideratzea, baina, aldi berean, parte-hartzaileari nolabaiteko askatasuna ematea haien historia kontatzeko, eta nahi izanez gero, galdetegitik momentu konkretu batzuetan ateratzeko. Gidoian malgutasunak aberastasuna ekar dezake, parte-hartzailea aurreikusi gabeko gai interesgarriak buruz aritu daitekeelako. Migratutakoak eta bertakoak gai desberdinei buruz arituko zirela aurreikusita, talde bakoitzari zuzendutako gidoia ez da guztiz berbera izan, berezitasun batzuk izan ditu talde bakoitzeko kideekin erabilitakoak<sup>4</sup>.

*Focus group* edo eztabaida-taldeak informazioa jasotzeko edo corpusa jasotzeko erabili daitezke. Datuak gurutzatzeko ere erabilgarria izan daiteke, parte-hartzaileen hautemateak egiaztatzeko edo ikuspuntu desberdin batetik informazioa jasotzeko. Izan ere, parte-hartzaileek informazio desberdina edo forma desberdin batean eskaini ditzakete taldearen eraginagatik (Luke eta Goodrich 2019). Kasu honetan pertsona bakarra edo gutxi batzuk izan beharrean, talde batek hartzen du parte (8-10 kide). Talde hau ez da izango naturala (familia bateko kideak edo koadrila bat, adibidez), ikerketari begira eraikia baizik (Hernández García 2010, 308). Zentzu honetan, esan daiteke ikertzailea, eztabaida-talde bat egitean, egoera esperimental baten aurrean aurkitzen dela. Bere helburua taldearen bitartez gizartean gai edota gertakari baten inguruan egon daitezkeen posizio edota diskurtso ezberdinak azalaraztea eta erreproduzitzea da. Hori dela eta, taldeak sortutako diskurtsoak eta egoerak izango dira analisiari aurre egiteko eta ondorioak ateratzeko langaia (Hernández García 2010, 308).

Ikerketa honetan, *focus group* edo eztabaida-talde bakar bat egin da adineko emakume migratzaileekin. Taldean erosoago arituko zirela eta informazioa modu

---

<sup>4</sup> ! eranskinean ikus daitezke gidoia bere osotasunean

errazagoan bilduko zela aurreikusi zelako egin zen hautu metodologiko hau. Bi orduko saioa antolatu zen arratsalde batean Altzako adinekoen aisialdirako elkartearen.

#### 4.4 LAGINA

Kasu honetan, ausazko laginketa egin da (Mayan 2009). Lagina diseinatzeko prozesua, alabaina, ez da zorizkoa izan. Aintzat hartu dira parte-hartzaileen gaiarekin lotutako berezitasunak eta zein ekarpen berezi edo baliagarri dituzten analisi tematikorako eta ikerketa galderei erantzuteko (Mejía Navarrete 2000, 166). Bestalde, laginketa estratifikatu ez proportzionala egin da, hau da, populazio estratu edo multzoetan banatuta, multzo bakoitzak duen tamaina ez da kontuan hartu, ez eta multzo bakoitzetik pertsona kopuru bera hartu.

Laginketa diseinatzean, kontuan hartu diren faktoreak hauek izan dira: jatorria, belaunaldia eta generoa.

Hona hemen egindako laginketari buruzko datuak:

GAUR EGUNGO ADINA	35-50 urtekoak		50-60 urtekoak		60-70 urtekoak		70-80 urtekoak		GUZTIRA
	G	E	G	E	G	E	G	E	
50-70 urteetan heldutakoak					1 (A1)	1 (A3)	1 (A4)	5 (A5, A6, AA7, A8, A9)	<b>8</b>
50-70 urteetan heldutakoak ondorengoak						5 (B2, B3, B4, B6, B7)			<b>5</b>
50-70 urteetako immigrazioa bizi izan zuten bertakoak						3 (C2, C3, C4)	1 (C5)	1 (C1)	<b>5</b>
50-70 urteetako immigrazioa bizi izan ez zuten bertakoak	1 (D3)		1 (D1)		1 (D2)				<b>3</b>
<b>GUZTIRA</b>									<b>21</b>

Lagina osatzerakoan garrantzia berezia eman zaio emakumeen presentziari. Izan ere, hizkuntzaren etxeko kudeaketan emakumeek izan ohi duten rola garrantzizkoa da bai etxeko transmisioan zein erabileran, hau da, belaunaldiz belaunaldiko transmisioan, eta, baita, haurren heziketa-prozesuan eskolarekin harremanetan ere, non hizkuntzaren transmisio soziala gertatzen den. Emakumeen rol hori aztertu dute euskararen kasuan (Altuna Ramírez eta Hernández García 2018), eta, badirudi, etorkinen kasuan ere, antzeko papera hartzen dutela emakumeek. Horregatik presentzia handiagoa izan dute ikerketa honen laginean emakumezkoek gizonezkoek baino.

Bestalde, aipatu behar da lagina mugatzeko, *saturazio printzipioa* erabili dela, hau da, ikerketa kualitatiboetako analisi-prozesuan ohikoa da informazio berririk ateratzen ez denean, lagina osatutzat ematea (Marshall 1996), eta, ikerketa honetan ere printzipio hori kontuan izan da.

#### 4.5 DATUEN KUDEAKETA ETA ANALISIA

Datu-bilketaren fasean jasotako informazioa modu sistematizatuan antolatu eta kudeatu da. Testigantzak audioz jasota, transkribatu egin dira; parte-hartzaileen izenak kodetu dira anonimotasuna eta pribatutasuna bermatzeko.

Behin corpusa antolatuta, lehenengo azterketa egin da; aldeztatik diseinatutako ikerketagai-zerrendatik abiatuta, testigantzak arakatu dira eta oinarrizko ideiak jaso dira, analisi sakona hasi baino lehen (Bujan Vidales 2001, 136). Azterketa kualitatiboetan gomendatzen den bezala, bi ikertzaile gutxienez aritu dira analisi lanean emaitzen fidagarritasuna bermatzeko (Potts eta Brown 2005, 269).

Jasotako datuak lantzeko, *Atlas.ti* ikerketa kualitatiborako tresna erabili da. Programa hau erabilgarria da datu kualitatiboak antolatzeko eta kudeatzeko, analisi prozesua arintzeko, modu sistematizatuan egiteko eta emaitzak modu errazean irakurtzeko eta gurutzatzeko. Horrez gain, ikerketa kualitatiboen emaitzei ziurtasun handiagoa eta zehaztasun zientifikoa ematen die.

Kasu honetan, testigantzak aztertzeko, analisi tematikoa egin da, "kategoria aglutinatzaileen" sistema erabiliz (Bujan Vidales 2001, 137). Ikerketaren gai orokorretatik maila altuagoko "gaiak" eta "kategoriak" edo azpigaiak sortu dira; eta



erantzunetik ateratako ideia zehatzak maila baxuko "kodeak" bihurtu dira. Kode horietatik, gai bakoitzaren ideia orokorrak edo "titularrak" atera dira, eta horiekin emaitzak interpretatu dira. Guztira 10 gai, 39 kategoria eta 154 kode atera dira.

## 4.6 TRIANGULAZIO-METODOA

Lehen esan bezala, ikerketa kualitatiboetan, datuei ikuspegi desberdinetatik begiratzeko eta informazioa baieztatu edo ezeztatzean, triangulazio metodoa erabiltzea komenigarria da (Bujan Vidales 2001, 140). Teknika honek "lanari sinesgarritasun handiagoa ematen dio" eta "inolako metodo-mugarik gabe sailkapena eraikitzen laguntzen du (Bujan Vidales 2001, 136). *Atlas.ti* programa lan horretarako ere erabilgarria da, eta gurutzaketak egiteko aukera ematen du. Gurutzaketak egiteko aldagarriak honako hauek izan dira: gaiak, parte-hartzaileen profila (migratzaileak, bertakoak, belaunaldia), eta datu bilketaren metodoak (erdi-bideratutako elkarrizketak, eztabaida-taldeak.

### Ikerketa-oharra

Ikerketa honek *Hartutako zorraren printzipioa* (Moreno Fernández 2009, 153) du oinarrian. Izan ere, printzipio horren arabera, komunitate bateko edo batzuen kideen datuak lortzen dituzten soziolinguistak behartuta daude ondorioztatutako ezagutza komunitatearen mesedetan erabiltzera, komunitateak hala behar duenean. Beraz, integrazio soziolinguistikoaren azterketatik lor daitekeen ezagutza komunitatearen bizikidetzarako helburu bidezkoagoak eta solidarioagoak bihurtzen lagungarri izatea du helburu. Eta, kasu honetan, migrazio berrien kudeaketan gizarteratzea erraztu eta hobetzea.

## 5 IKERKETAREN EMAITZAK

Atal honetan, elkarrizketen eta eztabaida-taldearen bidez eskuratutako informazioaren azterketaren sintesi bat aurkezten da, gaika antolatuta. Bildutako informazio-bolumena oso handia da eta, sarri, ikuspegi soziolinguistikotik haragoko elementuak biltzen ditu barnean. Ikerketaren emaitzen argitasunaren mesedetan hautua egin da ikerketa-gaiari dagozkion elementuetan jartzea arreta. Gai bakoitzean informatzaileek emandako ikuspegia laburtu da kontakizun batean eta, sarritan, aipamen edo iritzi desberdinak agertu arren, nagusitu den ikuspegiaren sintetizatu dira posizioak. Sintesi lan hau elkarrizketen eta eztabaida taldearen transkripzioetatik eratorritakoa den arren, irakurterraztasunaren mesedetan aipu literal gutxi batzuk soilik (jasotako hizkuntzan) ekartzearen aldeko hautua egin da.

### 5.1 MIGRAZIO-PROZESUAREN ABIAPUNTUA

Etorkinen integrazio soziala aztertzeko migrazioaren abiapuntuko egoera da prozesu horretatik kontuan hartu beharreko elementua.

Altzan gertaturiko migrazio-mugimendua XX. mendeko erdialdean Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan gertatu zenaren isla da. Harrera-gizartean garatzen ari zen industrializazioaren beharretarako eskulanaren eskari masiboa eta jatorri-lurraldeetako egoera ekonomiko eskasa elkartu ziren; bizi-baldintzak hobetzeko nahiak eta itxaropen pertsonalak aktibatuta, fenomeno sozial indartsua sortu zen. Erabaki pertsonaletatik harago, arrazoi ekonomikoengatik gizartearen eraldaketa sakona eragingo zuen fenomeno sozial zabala eratu zen, Aierdi soziologoak deskribatu zuen moduan (Aierdi Urraza 2000).

Harrera-lurraldean lehen antolaketa familiako edo herrikideekin osatutako elkartasun-sareen bitartez egin zen, norbanako bakoitzaren arrakastatik eratorrita ondorengoekin harremanetan eraikitako sareak. Lehen belaunaldiko etorkinenganako eskulanaren eskaera harrera-gizarteko enpresa-munduko eliteek eragin zuten. Euren enpresek (industria) zituzten beharrak asetzeko lana (eta zenbait kasutan bizitokia) zuzenean eskaini zieten jatorri-lurralde batzuetako populazioei.

Hortik abiatuta, migratuen lehen antolakuntza norbanakotik hasita oinarrizko sare sozialek asebate zuten. Eta egoera berria (bizi- eta lan-baldintzak) egoki iritzita, beste hainbat pertsona eta talde erakarri zituen lehen migrante horien esperientziak.

---

*Pues vinieron por el trabajo. En sus pueblos no había trabajo para jóvenes y aquí parece ser que siguen viniendo para el Norte porque unos a otros comentaban que había trabajo.*

B4

Etorkinen integrazio sozialaren lehen urratsa harrera-gizartean oinarrizko bizi-baldintzak asetzea da. Altzara etorritako migratzaileek aurretik heldutako familiako edo lagun edo herritarrek sortutako sareen babesa izan zuten, gutxieneko bizi-baldintzak asetzeko moduan: lehen uneko biziraupeneko gastuak, ostatu ematea, lan bilaketa...

---

*Estuvimos con derecho a cocina. Entonces era lo que se estilaba, porque claro, venías aquí y con un suelducho pequeño no tenías para comprar. Y cuando pudimos, compramos un piso, y en él estamos.*

A5

Ez ziren garai errazak izan, baina gizarteratzea abian jartzeko aukera izan zuten. Hizkuntzaren aldetik ez zuten inolako oztoporik izan, gutxienez harrera gizarteko hizkuntza hegemonikoa menderatzen baitzuten, eta egoera gutxituan zegoen euskararen beharrik ez baitzuten izan.

Nolakoa zen Altza, ordea, migrazio-mugimendu sakona gertatu aurretik? Nola egokitu zen bertako biztanleria fenomeno berrira?

Migrazio mugimendu handia ezagutu zuten Altzako biztanleek bizipen eta sentimendu desberdinak dituzte gertatutakoari begiratzean. Batetik elkartasunezko sentimenduak garatu zituzten. Altzara heldutakoekiko enpatia sentitzen zutela aipatu dute, euren antzekoak bezala ikusi arren, bizi-baldintza gogorragoak zituztela eta ekonomikoki pobregokoak zirela ere nabaritzen zutelako.

---

*Eta jendea etxe bakarrea 2 edo 3 familiatan banatzen zen. Gogoratzen dut nola familia bat gela batean bizi zen, eta aukera zuten sukaldeko eta komuneko aukera. Gogoratzen naiz nola izaten zituzten giltzaz ixten ziren logelak. [...] Gero jateko gauzak ere hasi ziren bidaltzen, fideoak zirela, arropa zela... Horiek ere poltsetan prestatzen genituen, eta banatzen hasi ginen. Gogoratzen dut nola, ni baratzaun etxe handi batean bizi nintzen, gogoratzen dut barku batean nola iritsi ziren arropa eta zapata pila bat. Gogoratzen dut gure baratzaun nola aireatzen uzten genituela eta banatzen genituela.*

Baina, halere, etorkinen sarea eta bertakoena neurri handi batean banatuta mantendu ziren. Aipatu behar da hasieratik hauteman zutela "bi mundutan" bizi zirela, elkar gutxi ukitzen ziren izatearen kontzientzia bazutela eta harremanak izan arren, ohitura desberdinak zituztela. Bertakoek ikusi zuten etorritakoek harreman sozialak euren artean egiten zituztela, eta bertakoekin interakzioak marjinalak zirela. Eskola eta lanaren testuinguruan hasi ziren harreman horiek estutzen eta, denboraren poderioz, maila komunitario eta sozialean izan zuten isla. Migrazioa jaso zuen biztanleriak, oro har, uste du gizarte modura etorkinei egin zitzaizen harrera ona izan zela.

## 5.2 LAN-INTEGRAZIOA

Altzara etorritako migratzaileek diotenez, aukera izan zuten lan-merkatuan sartzeko bertara heldu bezain laster eta, gainera, denborarekin lanpostua aldatzeko, baldintzak hobetzeko eta gizarteratze-prozesuan aurrera egiteko modua izan zutela adierazi dute, garai hartan Gipuzkoan lan asko baitzegoen (Izaola eta Zubero 2018, 73). Lehenago aipatu bezala, "auzo horietako langileen kezka nagusia zen ahalik eta gehien lan egitea beren etxebizitzak ordaintzeko behar zuten dirua irabazteko eta familiak beren jaioterritik ekartzeko. Lan egitera etorri ziren, eta hori egiten zuten denbora gehienez" (Izaola eta Zubero 2018, 39).

Era berean, azpimarratu behar da, gaur egun egiten dituzten errelatoak kontuan hartuta, integrazio laboral eta sozioekonomiko arrakastatsuen sentimendua garatu zutela migratzaile gehienek, eta ondorioz, integrazio sozialeko esperientzia positiboa izan zela horietako askorentzat (Izaola eta Zubero 2018, 90).

Aipatu behar da, era berean, prozesuaren etapa horretan, lan-munduan integratzeko ez zutela euskararen beharrik izan, Altzako errepertorio linguistikoan, euskararen egoera gutxitua ez ezagutzeak inolako eragozpenik sortu ez baitzien. Ikuspegi soziolinguistiko batetik, beraz, harrera-gizartean bi hizkuntza egoteak ez zien oztoporik eragin etorkinei eurek bizi izan zuten integrazioaren fase horretan.

---

*Sí, sí. Yo he ido a servir a las casa toda la vida, no he dejado de trabajar. Pero todas esas casas eran castellano hablantes. O sea que en mi vida laboral no ha habido contacto con el euskera.*

---

---

*Si, en el trabajo tenía compañeros que eran euskaldunes, pero la mayoría que trabajamos, andábamos siempre en las obras, y andábamos siempre tres o cuatro pero éramos todos casi gallegos.*

---

### 5.3 INTEGRAZIO SOZIALA

Etorkinek euren artean egin zuten, batez ere, sozializazioa Altzan. Kokatze fisikoak baldintzatu zuen harremanak egitea, neurri batean. Lehenik, jatorri bereko kideen etxeetan bizitzen jarrita, eta ondoren, berariaz immigrazioak sortutako beharrari erantzuteko eraikitako auzune eta etxebizitzetan kokatuta, sarri ez zuten bertakoekin zuzeneko eguneroko bizilagun-harremanik izan. Alegia, harremanak etxepekoen artean izan ziren, eta, eskolan, batez ere etorkinen ondorengo artekoak. Nolanahi ere, aipagarria da bereizketa horrek gizarteratze sozialaren mugak ere agerian jartzen dituela. Ruiz Olabuenagak dioen modura "Gizarte-harremanen izaera endogamikoak, ezkontza-eraketari ez ezik, lagunei eta etorkinek euskal elkarte-bizitzan parte-hartze txikiagoa izateari ere eragiten die, eta horrek adierazten du euskal gizarte-munduan integraziorik ez dagoela hein batean (Ruiz Olabuenaga eta Blanco 1994, 234)<sup>5</sup>.

---

*Nosotros estábamos en Santa Bárbara, que era pequeñito, y nos conocíamos todos. Es como estar en el pueblo, y hablábamos por el nombre, que ahora se está perdiendo mucho eso. [...] Yo me he sentido acogida y la gente a al que he tratado también han acogido bien a los de fuera. No he visto nada extraño. Pero eso sí que es verdad que en los grupos de ocio, siempre va más con la gente de tu entorno.*

---

Euskaldunekin harremanak izan behar handiegirik gabe bizi ziren eremuetan kokatuta eta Altzako biztanleriaren zatirik handiena izanik, migrazio mugimenduaren aurretik bertakoa zen jendea apenas egongo ez balitz bezala egin zuten aurrera,

---

<sup>5</sup> . El carácter endogámico de las relaciones sociales no sólo afecta a la formación de matrimonios, sino también al círculo de amistades y a la menor participación de los inmigrantes en la vida asociativa vasca, lo cual indica cierto grado de ausencia de integración en el mundo social vasco. (Ruiz Olabuenaga eta Blanco 1994, 234). Itzulpena geurea

elkarrekin bestelako beharrik izan gabe. Harreman mugatu hori, era berean, haurren eskola-garaian ere islatzen da, arrazoi demografikoak tarteko, lehen urteetan euskaldunen presentzia oso txikia zelako eskoletan.

---

*En mi clase, fjate, éramos cuarenta y cuatro en clase, y solamente había dos que sabían euskera. [...] Pero en aquella época no lo practicaban. Habían aprendido en casa, y [...] eran euskaldunes, de los caseríos que había.*

B4

Aipagarria da bestalde, egoera linguistikoak edo kultural bereizgarriak baino gehiago, integrazioaren oinarria partekatzen zituzten balioak izan zirela garrantzizkoak, esate baterako, lanarekiko ardura, seriotasuna, hitzaren garrantzia eta antzekoak.

---

*Yo de verdad aquí he sido bien cogido, con la gente y he trabajado villas por ahí, total que los caseros y siempre pumba, la palabra el casero, palabra de otro no valen eh! Porque te decían y después no pagaban.*

A4

---

## 5.4 INTEGRAZIO KULTURALA

### 5.4.1 Etorkinen identitatea, jatorriarekiko harremanak eta bilakaera

Migrazio-prozesuan jatorriarekiko eta harrera-gizartearekiko sortzen diren harreman afektiboek baldintzatzen dute integrazio-prozesua, neurri batean. Horregatik, ikerketa honetan aztertu nahi izan da parte hartu duten etorkinek gai horrekiko adierazten dituzten ideia eta bizipenak.

Azpimarratu behar da, lehenik, ez dagoela homogeneotasunik etorkinek jatorriarekiko izan dituzten sentimenduei dagokienean. Alderantziz, desberdintasun handiak nabarmendu behar dira horien artean. Labur-labur esatearren, jatorriarekiko harreman *baikorrak*, *kontrajarriak* eta *ezkorrak* aurkitu ditugula esan behar dugu.

Jatorriarekiko sentimendu *baikorrak* gailentzen dira etorkinen artean, oro har. Ohikoa izan da, esate baterako, jatorrizko familiartekoekin eta lagunekin harremanak mantentzea, eta horrela, opor garaitan urteroko bidaiak egitea. Ohikoa izan da, era berean, jatorriko herrian norberaren edo familiaren etxea mantentzea eta hara itzultzeko aukera gordetzea horrela. Horrek, sarri, beste leku batzuetara joandako herriko beste migratzaileekin batera elkartzea ahalbidetu zuen, esperientzia eta bizipen partekatuak trukatzeko. Badago, gainera, harreman hori seme-alabei emateko borondatea, eta, hala izan dadin saiatu ziren, aldian aldiko herrira egiten

zituzten bidaien bitartez. Nolanahi ere, harreman horiek higatzen joan ziren urteen poderioz, loturak eteten, jatorriko herrietan familiartekoak edo lagunak urritzen joan ahala, sarri, harreman horiek desagertu arte.

Ezaugarri horiek, norberaren identitatearen bilakaerarekin lotura dute: badirudi etorkinen lehen belaunaldiko gehienek sendo mantentzen dutela jatorriko identitatea, eta bigarren belaunaldikoek kontaktuak higatu ahala eta harrera-gizartean integrazio kulturalak indarra hartzearekin batera, identitate bereziak garatzen dituztela.

Migratzaileen artean, alabaina, badira sentimendu *kontrajarriak* dituztela adierazten dutenak, alegia, "ez hango eta ez hemengo" izatearen kontzientzia, edo, gutxienez, besteengandik hala hautemanak izan direnaren irudipenaren berri eman dutenak.

Azkenik, jatorriarekiko sentimendu *ezkorrak* dituztenen lekukotasunak ere jaso dira. Alegia, jatorria atzean lehenbailehen utzi nahi esplizitua adierazi dutenen presentzia ere oso esanguratsua da, bai lehen belaunaldiko migratzaileen artean, eta, baita, bigarren belaunaldikoen artean ere. Modu batean, jatorriarekiko loturak al bait arinen eten behar argia sentitu edo bizi izan dute zenbait etorkinek, jatorri hori ukatzeak harrera-gizartean lasterrago integratzea ahalbidetuko zuelakoan. Hala adierazten dute zenbait etorkin eta euren ondorengoek ere.

Labur esanda, ikerketak erakutsi du etorkinen identitatearen inguruan dibergentzia garrantzizkoak daudela. Horien artean, jatorriko lurraldearekiko identitatea mantentzen dutenak badira; lehen belaunaldiko etorkinek, oro har, euren jatorrizko identitatea mantentzen dute, nahiz eta urteen poderioz bertakotze-prozesuan garapen desberdinak gertatzen diren: kasu batzuetan, jatorrizko identitate hori ez da aldatzen, baina, esan daiteke, askok, jatorriko eta harrera-lurraldeko bi identitateak partekatzen dituztela.

Bertan integrazio osoa izan dutela adierazten dute etorkin askok, eta horiek garbi daukate euren bizitza harrera-lurraldean dutela, identitatearekin lotu ala ez, eta jatorriarekiko harremana mantentzen duten arren. Alegia, euren nahian ez dago jatorrizko herrira itzultzea, euren bizitza lur berrian eginda bertakotu baitira erabat eta bertan hazi baitute familia. Nolabait, lurrarekiko identifikazio eta integrazio soziala gauzatu da.

Etorkinen bigarren belaunaldikoen ikuspegitik aipatzekoa da Altzako bizitza sozial eta politikoak markatu zuela neurri batean bertako sozializazio-prozesua. Elizako jarduerak pisu handia izan zuen garaitatik gizarte-mugimendu eraginkor izatera igaro ziren garaietara, bestelako antolakuntza-mugimenduak ere sortzen hasi ziren, eta kuadrillak ere hala eratu ziren: etorkinen eta bertakoen arteko hurbilketak eta harremanak testuinguru horretan erraztu ziren. Auzoan mugimendu sozialak edo politikoak, neurri batean gatazkatsuak izan zireneko ideia gogoan dute batzuek, eta ondoren, baita auzoaren garai bateko ospe txarra ere; horiek guztiek markatu izan zuen Altzako idiosinkrasia. Aldi berean, Altza pobreen edo pobreen auzoa izatearen ideiak bere pisua ere izan zuen, eta ideia horren arrastoak oraindik gaur egun egon, badaude. Horrek guztiak, ordea ez zuen auzoaren izaera ahuldu, aldiz, partaide izatearen sentimendua garatu zuen, integrazio sozial sakona lortuz.

Azpimarratu behar da, ordea, hasierako mugimendu horietan euskararen presentzia hutsala izan zela (ondoren azalduko den moduan, euskararen aldeko mugimendu esplizituetan izan ezik). Identitate euskaldunaren eta etorkinen artean harremana ez zen gatazkatsua izan, baina zenbaitetan bai konfrontaziokoa. Azpimarratu behar da, era berean, badirela etorkinen artean batzuk bertako kulturara eta hizkuntzara hurbiltzeko beharra izan dutenak benetan integratuak sentitzeko, batez ere, bigarren belaunaldikoen artean. Zenbait kasutan, hurbilketa horren oinarrian euskal kulturarekiko nolabaiteko idealizazioa ere aitortzen dute. Horietakoen artean, gainera, bertan integrazio osoa izateko jatorrizkoa ukatu beharra sentitu dutenak ere badira. Baina argi geratu da, era berean, horiek etorkinen artean gutxiengoak direla.

#### **5.4.2 Etorkinen iritsierak eragindako sentimenduak eta jarrerak**

Balio demografikoen aldatze bortitza hizkuntza-komunitate jakin batentzat traumatikoa izan daiteke haren bizindar etnolinguistikoari dagokionean (Giles et al. 1977, 317). Horregatik da interesgarria Altzan immigrazio-garaiko euskal hiztunen komunitateak bizi zuen egoeraren azterketa egitea.

Altzan fisikoki eraldaketa bortitza gertatu zen, aipatzen ari garen immigrazio garaian, eta demografikoki gaintitu zuen bertako biztanleria. Egokitzeko edota moldatzeko aukerarik ez zuela izan adierazten dute bertan bizi ziren biztanleek. Izatez, etorkinak aldamenean bizi izaten jarri ziren baina "beste mundu" batean zeudenaren ideia izan zuten. Bertakoek badakite etorkinak ez zirela arduradun, baina euren migrazio-



prozesuaren emaitza modura inguruaren eraldaketa bortitza sufrimendutik eta ezintasunetik bizi izan zuten. Kontraesanak ere sortu ziren eurengan, gizakien harremanetatik hurbil eta bizimodu prekariopean sentitzen zituztelako; etorkinek bizi zuten egoera gordinak eta bertakoen munduaren suntsitze-prozesuak batera bizi izan zituzten, hain zuzen, garai antidemokratiko jakin batean inolako erantzunik ezin emaneko testuinguru hartan; emaitza modura diote, bertakoek ez zutela aukerarik izan inolako egokitzapen-prozesurik egiteko.

Gainera, garai horretan Altzako biztanleek oraindik oso gogoan zuten herri izatetik Donostiako auzoa izatera pasa zeneko garaia. Eta askok modu traumatikoak bizi izan zuteneko ideiak gordetzen dituzte oraindik. Bigarren belaunaldikoek dagoeneko higituta izan dezakete sentimendu hori, baina oraindik mantentzen da Altzakoa izatearen harrotasuna, neurri batean identitatearekin loturikoa. Etorkinek, jakina, ez dute prozesu hori bizi izan, eta integrazioa Altzan egin badute ere, Donostiako identitatearekin hurbilago daudela dirudi.

Halere, auzotarraren identitatea ere markatua dute ikerketan parte hartu duten etorkinek, betiere Donostiarra izatearekin oso harro egonda.

Nolanahi ere, honako hau ere, neurri batean behitzat, bateragarria deneko ideia bada. Alegia, Donostiako auzo marjinal modura tratatua dela, bigarren mailakoa, eta Donostiako administrazioaren aldetik behar bezala zaindua ez izatearen ideia guztiek partekatzen duten ideia ere bada.

## 5.5 Integrazio soziolinguistikoa

Esan gabe doa, etorkinen integrazio soziolinguistikoa modu dinamikoan gertatzen den fenomeno dela. Alegia, bertaratzen den populazioari dagokio, baina, harreraldeko biztanleriarekin harremanetan garatzen den prozesu bat da. Bi horien ikuspegiak alderatzea interesgarri jo da, beraz, eta, hala, biek dituzten iritziak jaso dira ondorengo azpiataletan zehazten den bezala.

Landu diren gaiak euskararen egoera soziolinguistikoarekin loturikoak dira. Bestek beste, jakin nahi izan da zein izan den, euren hautematetatik, euskararen presentzia eta erabilera, eta erabilera horrek sorturiko irudi eta jarreraren nolakotasunak.

Era berean bildu nahi izan da euskarak izan duen balioa, soziala, kulturala, ekonomikoa edo bestelakoa, bai hasiera batean, heldu zireneko garaitan, baina, baita, behin euskararen biziberritze-prozesua abian jarri zenetik aurrera ere. Horrez gain, gogoratu behar da etorkinen artean askok euskara ikasteko prozesuan murgilduta izan direla, eta ibilbide horretan zer-nolako esperientziak izan dituzten ezagutu nahi izan da. Azkenik, jaso nahi izan da euskal hiztunen eta euskal hiztunak ez direnen arteko harremanetan sortu ei izan diren hizkuntza-gatazken berri; izan ere, alderdi horiek guztiek parte hartzen baitute integrazio-prozesu soziolinguistikoa eta eragiten dute prozesu hori arrakastatsua edo korapilatsua izan dadin.

### 5.5.1 Euskararen presentzia, irudia eta jarrerak

Etorkinek adierazten dute Altzara heldu zirenean, bertan, euskararen presentzia edo ikusgarritasuna oso txikia zela.

---

*Cuando vinimos aquí, no se hablaba mucho en euskera ee...*

A8

Gainera, hizkuntzaren debekuaren kontzientzia eta inpresioa ere gogoan dute.

---

*En todas partes entonces. Estaba totalmente prohibido el euskera. Y en ese entorno yo no conocí nadie que tuviera contacto con el euskera.*

A3

Era berean, euskaldunei dagokienez, euskara erabiltzen zuten edo euskaraz bizi ziren hiztunak baserritarrak zireneko ideia dute, oro har, eta gaztelaniaz ez zirela ondo moldatzen nabarmentzen dute.

---

*Baserriko jendeari, edo ... Herreran hitz egiten zen, Rotetan ez, beno aber, harakinek egiten zuten euskaraz. [...] Nik esango gainean 70ko hamarkadan, 15 urte inguru izango nituen. Eta jaixten zen gurdiarekin astoarekin Alzatik Herreraraino, eta jendea joaten zen txerri jana eramatera. Beno, baina galdera da ea ba ote zen harremanik, bertakoekin. Beno, baserriak zeuden oso urruti, bota zituzten baserriak. Beno, gero konturatu nintzen, nire izekok bazuen harremana Alzako kaxkoko batzuekin*

B2

Etorkinek aipatzen dutenari kontakizun osagarria egin diote bertakoek, eurek bizi izandakoa azalduz. Alzako euskaldunen hiztun-komunitatearen ikuspegitik etorkinak Alzara heldu zirenean euskaraz hitz egiten zuten familiak baziren bertan, nahiz eta gutxiengoa izatearen kontzientzia izan bazuten. Euskararen presentzia soziala ahula zen eta arau soziala gaztelaniaz hitz egitea zen.

---

*Baina hizkuntzarekiko zegoen giroa ez zen euskalduna. Kanpoko jendea askoz gehiago zen eta edozein momentutan elkartzen bazinen ere, nola bazen beti tartean euskaraz ez zekiena... Eta gero, bertakoak ere, ez pentsa halako kontzientzia bat zutenik euskararekiko.*

C5

Eskolan ere, gaztelaniaz zen heziketa guztia, euskara erabat ikusezina eginda. Hala, eskolako haurren artean eta lagun gazteen artean harremanak gaztelaniaz ziren, eta horrek ez zien gatazkarik sortu, alegia, euskaldunei gaztelaniaz egin behar izateak ez zien arazorik eragin. Era berean, euskaldunen eta kanpotarren arteko harremanetan gaztelaniaz egitea ere normaltasunez hartzen zen.

Idea horrek adierazten du beren-beregi garai horretan euskararen ospea gaztelaniarekin alderatuta bazterrekoa zela. Zenbait kasutan, ospe ezak lotsa sentiaraztea ere eragiten zien euskaldunei; baztertuak izatearen ideia ere bizi izan zuten batzuetan; baserritarrek "vasquitoak" adierarekin mespretxatuak izatearen kontzientzia bazuten.

---

*Konplexua, ni gogoratzen naiz joaten ginela Alztatik Herrerara eskolara, aldapan behera, gero eguerdian etxera joan berriz ere, eta Herrerara iristen ginenean taberna batean koadrilla bat eskolan ez zebiltzanak, eta gu haientzat las vasquitas de Alza ginen, eta baserritarrek akonplejatuta zeuden erdaraz ez jakiteagatik. Eta orduan, hori hemen ere gertatu izan da, baserritarrak eta saiatzen ziren azkenean erdaraz erakusten umeari, behintzat erdaraz jakin dezatela, eta arrazoia zuten gainera momentu hartan.*

C1

Bazterkeria hori bizi izan zuten etorkin batzuen aldetik, baina baita Donostiako goimailako beste hiritar batzuegandik ere (euskaldun izanagatik edo baserritar izanagatik). Laburbilduz, bertakoek izan zuten euskaldun-modura gutxietsiak izatearen bizipena.

---

*Amonak esaten zuenean, Donostia jaisten ziren zaldi-karroan esnea eta saltzera eta insultoak eta Donostiako bide osoan. [...] Lehenengotan hemengo immigranteek eta gero Donostiko aberatsek.*

D3

Horrek guztiak giro sozial bat eragin zuen zenbait familia euskararen transmisioa etetera eraman zituena, seme-alabek gaztelaniaz ahalik eta azkarren eta hobekien hitz egin zezaten.

---

*Nire emazteari bere amak zergatik ez zion euskara irakatsi? Hizkuntza nagusia, kultura nagusia gaztelania zen eta ez zion transmititu. Eta euskaltegian ikasi behar izan zuen.*

---

*Ama euskaldun peto-petoa, etxean gaztelaniaz. Aitak ez dakit. [...] Eta laurogeitik aurrera ez dago zigorrik. Zergatik jendeak ez du transmititzen, orduan? Pues ya nagusi delako erdal kultura bat eta eskolaren gain uzten delako.*

D1

---

Nolanahi ere, guraso zenbaitek, jarrera oso aktiboa izan zuten, gailentzen ari zen euskararen erabileraren aurkako arau sozialari aurre egin eta etxean euskararen erabilera ziurtatzeko.

---

*Ohiturak dira, baina nola eskolan elkarrekin ginen, erdaraz egiten genuen. Eta etxean euskaraz. Niri oso astunak zirela iruditzen zitzaidan, gurasoak euskaraz egiteko esaten. Orain eskertzen dut.*

C4

---

Bertakoen iritziz, etorkinei ez zitzaien euskararen presentziaren berri eman, are gutxiago euskarara hurbiltzeko edo ikasteko komenigarritasunaz ezer adierazi edo eskaini ere. Izan ere, nahi izanda ere, etorkinek ez lukete aukera handirik izango euskara ikasteko.

Nolanahi ere, aipatu gabe ezin utzi, bertako euskaldun askok penaz eta frustrazioz bizi dutela, "bi mundutan" bizitzearen sentsazioa. Esperientzia horren deskribapen zehatza egin zuten lehenago ere zenbait ikertzailek honela adieraziz: "Bi munduko egoeran bizitzea eta horretaz ez ohartzea, besteak beste "kanpotik etorri diren edo etorri ziren pertsonen artean, hartu dituen kulturaren sakon gizarteratzeko urratsa egin ez duten etorkin-familien artean gertatzen da" (Amorrortu et al. 2009, 52).

---

*Ikastolan egin dut lan, eta kanpoko jendea nire gelan izan dut. Alde horretatik, bazegoen jende bat sentsibilizatu zena. Bada gaur eta bazegoen. Baina beste zenbaitek ez daki nora etorri den. Nik aldamenekoak ikusten ditut nigandik beste mundu batean bizi direla zeharo. Oso jatorrak dira, baina... Haien alabak badaki euskaraz eta bilobek orain ikasiko dute. Baina senar emazte horiek, ez horixe. Jende gehiena Cáceresetik, Extremaduratik eta Salamancatik etorri zen.*

C2

---

Gatazka txikiak ere sortu ziren etorkinen eta bertakoen arteko harremanetan sentsibilitate desberdinak agerian utziz, baina gatazka handirik sortu ez izanaren kontakizuna gailentzen zaie gertaera puntual horiei. Bertakoek, kasu batzuetan, nolabaiteko hurbilketa ikusi izan dute, baina baita euskarara hurbiltzeko inolako ahaleginik egin ez zutela sentitu ere. Bertakoak eta bertako hizkuntza ikusezinek balira bezala. Bertako zenbait euskaldunek mugimendu demografiko handiaren testuinguruan euskararen eta euskarari lotutako mundua baztertua izatetik eta galdu

izartetik irakurri zuten. Bertakoek kanpokoan hizkuntza-baldintzetara egokitu behar izanaren sentsazioa dute, euren ohiko hizkuntza alde batera utziz.

Aipagarria da, bestalde, jatorriz bigarren hizkuntza bat zutenengan –galegoa, batez ere, Altzaren kasuan- euskararen aurkako jarrerak ikustea arraroa dela iruditzen zaiela euskaldunei. Gainera, Altzako galego hitzunek euren hizkuntzari lotutako hainbat bizipen traumatikoren berri ere ematen dute: gutxiespenak, autogorrotoa, identitate osatu gabea, transmisioaren etetea...

---

*Nik sentitzen nuen hori, alegia, Galizia ez da nirea, beno nerabezaroan horrelako gauzak gertatzen dira, sentitzen duzu lotsa, esate baterako gogoan dut.. begira nire ama oso estrobertidoa zen eta zalapartatsua, hitz egiten zuen oso altua eta adibidez autobusean berekin joaten nintzenean, segituan atze-atzera joaten nintzen, ezkutatu nahi nuen, eta gallegoz hitz egiten bazuen okerrago. Ospe gai bat badago, eta gero, klase kontu bat, klase kutsu bat ere bai. Hau da, gallegoa bazara, etorri zinen pobrea zarelako, eta gallego izaten jarraitzen baduzu pobre izaten jarraituko duzu.*

B2

Hizkuntza minorizatuaren estatus paraleloen hautemateak ere baziren. Hala aztertu da azken urteetan, hain zuzen, kasu guztietan gertatzen ez bada ere, jatorrian hizkuntza-aniztuna izateak laguntzen duela harrera-gizarteko hizkuntza minorizatuaren aurrean jarrera positiboagoak izan ditzaten (Uranga eta Aierdi 2021).

### 5.5.2 Euskararen balioa

Hizkuntza-komunitatean integratzeko, integrazio soziolinguistikoa osatzeko, hizkuntza ikastea ezinbestekoa da. Ikasketa burutzeko motibazioa, ikasteko prozesua bera eta emaitzak baldintzatuta daude hizkuntza hori ikasteak ikasketaren subjektuari eskaintzen dizkion onurengatik. Pertsonak hizkuntza bati eta hau menderatzeari ematen dioten balioen arabera dira ikasketarako baldintzak. Ondorengo ataletan aztertuko da, beraz, aldagai horien garrantzia Altzara heldutako migranteen integrazio soziolinguistikoan.

#### Balio instrumentala

Euskararen balioa etorkinen begietara agerian jartzen da, batez ere, trantsizio-garaian. Euskararen aldeko mugimendu sozialen eta, ondoren, hizkuntza-politikaren eraginez (1982tiki aurrera) etorkinek ikusi zuten euren ondorengoek euskaraz hitz egiten jakitea etorkizuneko gizartean aurrera egiteko giltza izango zela; gizartean

hobeto kokatzen lagunduko zien elementua. Eta horrela, euskararekiko harreman zuzen handirik izan ez zuen etorkinen lehen belaunaldi hartako kide batzuen seme-alabak euskarazko eredu etako ikastetxeetan eskolatzen joan ziren.

---

*Izan bertakoak edo izan kanpokoak, euskaldunak izan, euskaldunak ez izan. Denek pentsatu dute euskara beharrezkoa zela seme-alabentzat. Zer zentzutan ez dakit, identitate zentzuan edo aukera sozialen zentzuan. [---]Migranteen ikuspegitik, sortuko zen seme-alabentzat beharrezkoa izango zenaren ideia, hori garbi. Azkar ikusi zuten horren beharra seme-alabentzat.*

D2

Horrela, euskararen aldeko hizkuntza-politika horien aurrean jarrera positiboak izan zituztela esan daiteke, beraz, lanpostuetarako euskara maila jakin bat eman behararen inguruan etorkinek onartu zuten, nahiz eta horrek oztopo edo ahalegin berezia eskatu zieten.

Euskarak ez du, ordea, balio instrumental hori izan etorkin helduentzat. Abian jarritako hizkuntza-politikek ez zieten zuzenean eragin helduei, ondorengoei bezala: lan munduan ez zitzaie behar hori agertu eta, are gutxiago, euren auzoan ez zuten euskararen beharrik izan sozialki erabat integratuta sentitzeko. Ikuspegi soziolinguistikoko batetik begiratuta esan daiteke harrera-gizarteko hizkuntza hegemonikoaren hiztunak izatean euren hizkuntza-estatusa ziurtatuta izan zutela; ez zuten sentitu hizkuntza gutxituak euren estatusa arriskuan jartzen zuenik. Eta, beraz, horrek euskararen kontrako jarrerak saihestu zituen helduengan.

---

*Pertsonak desberdinak dira, eta sentsibilitate minimo bat eduki zuen jendea 80. hamarkadatik aurrera igartzen da bere seme-alabekiko transmititu dela beste zeozer, eta hor nik baditut lagunak, gurasoak erdaldunak dira, beraiek euskaldunak dira eta euskaraz bizi dira, hautu hori egin dute. Badaukat lagun min bat gurasoak dira Salamancakoak, etxean erderaz hitz egiten du, baina bera euskalduna da, orduan sentsibilitatea eduki duenak edo saiatu denak zerbait bai. Egia da baita ere alde ez egotea baino aurkako jarrera edukitzea. Aurkako jarrera, nik entzun ditut komentario batzuk "para que me hablas en euskera si ya sabes que no hablo".*

D3

Aipagarria da, nolahi ere, migrazioaren lehen belaunalditik bigarrenera euskarak balio instrumentala irabazteak baduela garrantzia, Amorrortuk eta bestek adierazten duten moduan "euskarak azken hiru hamarkadetan tresna-balioa irabazi duelako pertzepzioa egoteak badu garrantzia. Arestian esan bezala, hizkuntza bati tresna-balioa antzematea erabat lotuta dago[elako] prestigioarekin, ageriko prestigioarekin hain zuzen" (Amorrortu et al. 2009, 41).

## Balio integratzailea

Euskal Herri mailan sortutako gizarte-mugimenduaren eraginez, 70eko hamarkadan, euskara ospea berreskuratzen hasi zen. Eta hori erabakigarria izan zen etorkinen eta bertakoen artean zubiak eraikitzeko. "Bi munduen" arteko hurbilketa alde kulturaletik eta sozialetik abiatu zen, politikotik baino gehiago. Euskararen auzia frankismoaren ilunpean berpizten ari zen euskal (*vasco*) nortasunaren erdigunean jartzen hasi zen eta diktaduraren amaierarekin lotzen ziren proiektu politiko emantzipatzaileek proposatzen zuten eraldaketa sozialaren baitan integratutako elementua zen, aldi berean.

Halere, euskarara hurbildu zirenak, proportzionalki gutxiengoa ziren. Euskararekin lehen kontaktuak gazte garaian izan zituzten, batez ere, etorkinen bigarren belaunaldikoek, aipatutako trantsizio garaiko mugimendu sozialaren eta kulturalaren eraginpean. Testuinguru horretan, euskal kultur adierazpenek, musikak bereziki, jakin-mina eta erakarmena sortzen zuen etorkin jatorriko gazteei. Are gehiago, zenbaitengan euskal kulturarekiko miresmena sortzen da, zenbait kasutan joera politiko batean islatzen dena. Osagai horiek elikatu zuten zenbait pertsonak euskara ikasteko urratsa ematea. Euskara atzean utzi nahi zuten mundu zaharra (diktadura, pobrezia, erlijio-arauak...) ordezkatzeko bokazioz aurkezten zitzairen aukerarekin lotuta (askatasun politikoa, bertako nortasuna, eraldaketa soziala...) ulertzeak euskararen munduan txertatzeko ekimena hartzera mugitu zituen hainbat. Beraz, euskaraz hitz egin nahi izatean, integrazioa euskal kulturaren eta euskararen bitartez izan behar zuela barneratu zuten, eta, hala, euskal munduan integratuta harrotasuna ere sentitu zuten.

---

*70etik aurrera irekitasun horretan euskalduntasuna hasten da prestigio bat hartzen. Eta de hecho, ordurako ja ikastolaren, elizaren bidetik, lehen esan dudan JOC-en bidetik, Herreran ikastola sortzen da. [...] euskalduntasuna baloratu egin zen. Hau da, iluntasun horretatik euskaldunak beren artean egiten dute, frankismoak ere hori nolabait baimendu zuen, ez zuen, etxe barruan intzazue eta erregionalismoa, eta gauza horiek sustatu ziren. Autoktonismo hori, hori frankismoak egin zuen. Hau da folklorea, baita ere beste folkloreak Espainiakoak. Orduan nahaste horretan bueno, onartua zen baldin eta ez bazuen presentzia publikoa. [...] Bazegoen hor aukera bat, ez? Ba polita zelako, erakargarria zen, ginen progresistak. Bueno, oraindik, gainera, borroka politikoa ere alde horretatik zihoan, batu egiten zen ideia horiek eta erakargarria zen, baina hainbestekoa izan zen etorrera, ezin zuela, ito egiten zuen gehiegi, gehiegi zen integrazioa errazteko.*

D1

Bada, horrez gain, beste ezaugarri interesgarri bat, hain zuzen, euskarak etorkinengan hartu zuen balio sinbolikoaren, esate baterako, seme-alabei euskarazko izenak jartzeko joera hedatua islatzen dena. Bigarren belaunaldiko pertsona batzuek, euren gaztelaniazko izenak ere euskaratu zituzten. Etorkinen artean sortzen zituzten zenbait elkarteri ere izen euskaldunak jarri zizkieten. Izen horien balio sinbolikoak adierazten du euskal nortasunean integrazio kulturalerako gutxieneko borondate bat. Gainera, euskaraz hitz egiten ikasi ez arren, hitz batzuk esateak (esate baterako agur hitzak) integrazio kultural horretan gerturatze bat adierazten du, euren familien jatorrizko lurraldeetako biztanleen aurrean, adibidez.

*Bueno, bi munduen artean, hor integratziora hasten da [...], hasten dira dantza-taldeak eta gauza zabaltzen hasten da, esan nahi dut, orduan erakarpen efektua dago. Euskal mundua euskararen mundua erakargarri bihurtzen hasten da [...] Gero beraiek egin zuten bide bat euskarara, ez ikasita, berriro diot, oso gutxi ikasi zuten gau eskoletan, asko izan arren, oso gutxi, proportzioan.*

D1

Kasu batzuetan, zerbait gehiago ikasten saiatu dira, eta maila bat hartu dute, eta, horiek aitortzen dute ondo ikasi ez badute ere, euren hizkuntzatzat dutela euskara. Bertakoek ere hauteman izan dute etorkin batzuek euskararen beharrik sentitu ez badute ere, balio sinboliko bat eman izan diotela.

Bertako euskaldunak eta kanpotik heldutako etorkin zein ondorengoak "bi mundu" bezala elkar hautematen dutela aipatu denez, merezi du arreta jartzea "mundu" horietako bakoitzean beste "mundua" izendatzeko moduetan. Alde batetik, Altzara bizitzera duela 40 edo 50 urte heldu eta bertan bizimodu osoa eratu duen hainbatek jatorri euskaldunekoei eta, bereziki, euskal hiztunei erreferentzia egiteko "vascos" kontzeptua baliatzen dute. Honela, "vasco" izendapen horretatik kanpo kokatzen dute euren burua, bertan bizitzen hamarkadak eman arren.

*Quiero decir, yo en mi casa, mi yerno es vasco. Y mis nietos y mi hija hablan el euskera. Y ellos en su casa hablan en euskera o hablan en castellano, pero me da lo mismo, porque yo... pero cuando vienen a mi casa, si tienen que decir algo, si me lo tienen a mí, me lo dicen en castellano.*

A6

Hurrengo belaunaldiari dagokionez, euren seme-alabei erreferentzia egitean, "vasco" direla eta hala sentitzen direla nabarmentzen dute. Bertan jaio izana eta (eskolaren bidez) euskara ikasi izana agertzen dira "vasco" kategorian kokatzeko elementu gako bezala.



Beste alde batetik, 1950-70 hamarkadatan Altzara heldutako migranteei erreferentzia egiteko jatorriz bertakoak ziren bizilagunek baliatzen zituzten edo dituzten kategoriena, Euskal Herriko beste hainbat gunetako immigrazioa aztertzerakoan hainbat adituk sakon landu izan duten gaia da, alegia, etorkinak “mantxurriano”, “koreano” eta antzeko mespretxuzko hitzekin deituak izatearena (Maia Soria 2005), (Zabalo et al. 2010b), (Iraola, Mateos, eta Zabalo 2011), (Izaola eta Zubero 2018) (Guerra Garrido 2019). Ikerketa honetan, fenomeno hori murrizta izan zela pentsatzeko zantzuak agertu dira altzatarren artean.

Etorkin batzuk jakitun ziren hitz horiek erabiltzen zituztela bertako batzuk, baina sekula ez omen diote garrantzirik eman, alegia, indarra kendu nahi izan diote gaiari. Badira horrelako izendapenik berari zuzenduta sekula entzun ez duela dioen etorkinik ere. Beste ikerketa batzuetan ere, fenomeno horren erlatibizatzea jaso izan dela aipagarria da (Iraola, Mateos, eta Zabalo 2011, 121).

---

*Y había una señora que aquella era vasca, y cuando íbamos los castellanos o los manchurianos, como nos llamaban, aquella solamente hablaba el vasco.*

A7

---

*A mí nunca me han llamado “manchuriano” ni María santísima no, nunca he oído nada, no.*

A4

Euskaldun jatorriko bertakoen giroan, belaunaldi zaharrenei lotuta agertzen dira etorkinak izendatzeko gutxiespenezko izen horien erabilera.

---

*Amonak bai zeukala antagonismo bastante handia txikitatikan kanpotik etorritakoei. “Maketo” hitza ez dut entzun asko etxean baina bai “belarrimotza”, eta “kastillanoak” “edota “cacereñoa” tonu despektiko batekin baita ere bai.*

D3

### 5.5.3 Gatazka linguistikoa

Hizkuntza arrazoiengatik sortutako gatazka-egoeren berri jaso da ikerketan. Etorkinen eta bertako euskaldunen artean sorturiko egoerek eragindako gatazken artean, bereziki aipatzekoak dira ondoren zehazten diren eta izaera desberdina duten honako biak.

Alde batetik, euskaraz ulertzen ez duten zenbaitek ez dute begi onez ikusten euren aurrean daudenean euskaldunek euskaraz hitz egitea. Behin eta berriro agertzen den aipamena da. Alegia, eraso modura bizi dute gaztelaniaz jakin arren, euskaldunek euskaraz hitz egitea ulertzen ez dutela dakiten pertsonen aurrean; elkarrizketatik kanpo sentitzen dira, baztertuak, deseroso. Eta errespetu falta bezala definitzen dute egoera.

---

*Yo me acuerdo que en mi vecindad, había una tienda, y el señor de la tienda, el dueño era vasco. Y había una señora que aquella era vasca, y cuando íbamos los castellanos o los manchurianos, como nos llamaban, aquella solamente hablaba el vasco. Y los demás, claro, nos quedábamos a dos velas porque no sabíamos si nos estaban diciendo algo bueno o nos estaba diciendo algo malo. [...] Lo que peor me sienta es eso, que vayas por ejemplo a la peluquería. Y hay una señora hablando en euskera con la peluquera... O sea, la peluquera me da los buenos días en castellano. Y si hay otras dos en castellano., Y si hay otra que sabe el euskera, ya empieza tiki tiki tiki, todo en euskera: la peluquera empieza en euskera. Y yo, que no lo sé tengo que estar con la boca abierta. [...] Con la boca cerrada. Eso, con la boca cerrada. Eso me pinta mal, sabiendo que me conocen de toda la vida y que no lo sé. Eso es lo que me sienta mal.*

A7

Puntu honetan argitu behar da euskararen erabilerak deseroso sentitzetik, eraso bezala edo errespetu bezala ulertzea, ez dela etorkinen bizipena, soilik. Erdaldunen euskararekiko bizipenen gainean egindako hainbat lanetan agertu den errealitatea da, etorkinak izan ala ez.

Agertu da baita ere, seme-alabek euskaraz egitea ondo ikusi arren, euren aurrean euskaraz hitz egitea gustuko ez duenik ere. Sentimendu horren berri jakin izan da lehenago ere, erdaldunen euskararekiko jarreretan oinarrituriko ikerketetan. Hala diote Amorrortu ikertzaile taldekoek: "Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz berba egitea" (Amorrortu et al. 2009, 182).

---

*Quiero decir, yo en mi casa, mi yerno es vasco. Y mis nietos y mi hija hablan el euskera. Y ellos en su casa hablan en euskera o hablan en castellano, pero me da lo mismo, porque yo... pero cuando vienen a mi casa, si tienen que decir algo, si me lo tienen a mí, me lo dicen en castellano. Pero entre ellos, si tienen que hablar, pues muchas veces lo dicen en vasco y en castellano. Y a mí, eso, me da mucha rabia. Y tengo que decirles: cuando estéis en vuestra casa habláis lo que queráis. Pero en mi casa se habla en castellano, para que yo entienda lo que decís*

A6

Aipatu behar da, ordea, ez dela hori etorkin jatorriko guztien pentsaera: beste batzuek ez dute gatazkatsu ikusi egoera edo ez zaie nabarmentzeko modukoa iruditu. Izan ere, erabat nagusi dira erdaldunekin daudenean euskaldunek gaztelania

erabiltzen dutela dioten testigantzak. Gainera, euskaldunak erdaldun elebakarren baldintzapenera egokitu eta gaztelania erabiltzeko praktika hau gorai patua da, gatazka saihesten duen jarrera bezala.

---

*Discusiones no. Porque hablando euskera, si uno no entiende euskera, hablan en castellano, yo la verdad no he visto así, o no recuerdo vamos.*

B4

Esan behar da, bestalde, euskaldunen artean erdaldunekin harremanetan, euskara alde batera utzi eta gaztelaniaz egin beharra modu traumatikoan bizi izan duenik ere badela. Azken finean, errespetuaren eta heziketa onaren izenean gehiegi galdu izanaren bizipena ere badago lekukotasunen artean.

#### 5.5.4 Euskararen ikasketa

Arestian esan bezala, euskara ikastera hurbildu diren zenbaitek motibazio instrumentala izan dute motore, beste batzuek integrazio identitarioaren bidetik heldu diote; batzuk hizkuntza-politikaren eragin zuzena izan dute. Baina, zenbait ikerketak lehenago adierazi izan duten bezala, Altzako iturriek berresten dute euskara ikasteko prozesua neketsua dela eta motibazio iraunkor eta sendoak soilik bermatzen duela prozesua burura eramatea. "Partaide guztiek argi dute euskara ikasten jartzeko beharrezko dela motibazioa izatea, batez ere, egin behar den ahalegina ikusita, hain zuzen ere, behin eta berriro agertzen den gaia izanik honako hori" (Amorrortu et al. 2009, 127)

Beste batzuek aitortzen dute komunikazio-hizkuntza modura ikusten dutela euskara beharrezkoa ez den arren, bertakotze-prozesuan bere lekua duela. Gainera, Altzako trantsizio-garaiko giro sozialak bultzatu zituzten euskara ikastera, batez ere, bigarren belaunaldiko etorkinen artean, batzuk; interesa izan zuten euskal kulturaren txertatzeko, eta horregatik adierazten dute euskara ikasteko prozesuan arrakasta izateko modu egokiena eta eraginkorra euskal kulturarekin lotzea dela.

Lehen belaunaldiko etorkinek pentsatzen dute eskolak duela funtzio nagusia euskararen transmisio sozialean. Euren seme-alabek eskolan ikasi dute eta, batzuek, euskara-maila oso ona lortu dutela diote. Haurrez gain, ordea, heldu-arogan bertakoekin harremanetan euskara ikasi dutenak ere badira; hainbat kasutan lanpostu zehatzeko giro sozialak hala egitera eramanda.

---

*Mi hijo, ahora es profesor, y tuvo que aprender. Entonces en las vacaciones se iba a un caserío, donde aprendía en euskera. Y tiene todos los títulos. Y cuando estuvo en Irún de profesor, le pagaban las clases para ir allí, y estuvo seis meses o así.*

A8

Euskaltegiek izandako funtzioa azpimarratu behar da. Ikerketan nabarmendu da zenbaterainoko garrantzia izan duen auzoko bizitza sozial eta kulturean: jende asko bertatik pasatu dela eta Altzako bizitzan txertatutako erakundea izan dela islatzen da. Nolanahi ere, urteen bilakaeran euskaltegiaren dinamika garaiko gorabeheran arabera aldatu izan dela ere ikus daiteke.

---

*[...] a este euskaltegi, he estado un año, porque siempre iba...mi hijo iba a Gros, pues iba al euskaltegi a gros. Y la gente, la chica que ha llevado el euskaltegi super maja con la gente de barrio y eso, mucha gente de barrio ha ido ahí vamos, a sacarse perfiles y eso. Mucha gente.*

B4

Euskara ikasteko prozesuari dagokionean aipagarria da saiatu direnen artean aitortzen dutela, edozein hizkuntza ikasteko gertatzen den bezala, euskararen kasuan ere, denbora asko eta ardua handia eskatzen duela. Eta, horrek oztopatu du bereziki lehen belaunaldikoek euskaraz hitz egiten ikasten saiatzea; ezin izan diote eskaini beharrezkoa zen tarte hori.

---

*Empezamos a dar los cursos de euskera, y empecé, pero es cierto que era ambicioso pero era difícil, también hay que decirlo, pero yo también tenía un hándicap, porque efectivamente por mi trabajo había momentos en los que no podía asistir. Eso final eso me retrajo y lo tuve que dejar.*

A1

Saiatu direnen artean, batzuek adierazten dute hizkuntza bera ikasteko zaila egiten zaiela eta ezinbestekoa dela irakasteko metodologia hobetzea. Baina, hobekuntza didaktikoen beharraren gainera, batez ere, nabarmentzen dute ikasitakoa erabiltzeko aukera izatea ezinbestekoa dela, eta hori sarri gertatzen dela. Alegia, frustrazio handia dela egindako ahalegina ezerezean geratzen dela ikustea, ez dutelako ikusten non erabili.

Nolanahi ere, oztopo horren gainera, guztiek jotzen dute bidegabekotzat euskara ikasteko ordaindu behar izatea. Borondatea izan arren, eta prozesua garrantzizkoa izan daitekeela ulertuta, ez dute egoki ikusten ahalegin ekonomiko hori familien gainean geratzea; ardua publikoen ardua izan beharko lukeela adierazten dute.

Euskararen ikasketa-prozesuan murgildu zenbait *zigor* jaso izana sentitu direnak ere badira euskara ikasten saiatu direnen artean. Baita, euskara ondo menderatzen dutenen artean ere. Batzuek pentsatzen dute ez dutela behar adinako gaitasun-maila lortu, eta porrot sentimendua dute; beste batzuk, tokiko aldaeran edo euskalkian ez dutelako hitz egiten, ez dira baloratuak sentitzen; eta azkenik, beste batzuek jaso dute inpresioa ez direla inoiz besteen begietara hemengoak izango, euskaldunengandik eurenganako mesfidantza aipatzen dute. "Euskaldun berri" izatearen zama daramate batek baino gehiagok; badira adierazten dutenak bertakotzea (integratzea) zaila egiten zaiela, "haiek" eta "gu" bereizketa etengabe gogaitzen dituela, alegia. Honako ideiak jaso izan dira lehenago ere, gaztelaniako hitzunen euskara ikasteko prozesuetan ere (Amorrortu et al. 2009), eta batez ere, euskal hitzun berrien inguruko ikerketek erakutsi dutena, bai euskal hitzunen legitimitasunaren inguruan eta baita euskalkien inguruan (Ortega et al. 2016).

---

*Orduan, biek jartzen ninduten nire jatorrian. Ni ez nintzen hemengoa. Ni ez nintzen euskalduna. Ni ez nintzen euskaraz egingo zuena edo. Mesfidantza. Euskara egiten zuen jendearen aldetik mesfidantza sentitu dut. Ikasiko ote nuen, edo gai izango ote nuen. [...] Beno 80, hamarkadaren amaieran. Ni ja guztiz euskalduna nintzen. Eta esan zidan: "tu puedes hablarme como quieras, pero yo te voy a hablar en castellano".*

B3

### 5.5.5 Euskararen aldeko mugimendua

Frankismoaren amaiera kontakizun sendoak eskaintzen dituzte Altzako biztanleek, euskara eta euskal kultura berpizteko gizartea aktibatu zen garai modura. Gainera, prozesu horretan, bertakoek eta etorkinek dinamika horien inguruan harremanak, neurri batean behintzat, sendotzen joan zirenen ideia agertzen da.

Lan boluntarioaren eta militantziaren bidez eratu ziren ikastola eta helduen euskalduntzeko ekimen desberdinak. Ahoz aho, atez-ate eta banan-banan egin zen azotarrak horietara erakartzeko lana.

---

*Altzan ikastola bat sortu zen eta etxez etxe ibili ginen galdetzen ea interesatzen zitzairen ikastola bat sortzea. Horretarako, parroketara jo genuen zein ume euskaldun zeuden jakiteko eta pixka bat zundatu genuen, eta horrela ireki zen Los Boscosen lehenengo ikastola.*

C2

Euskal Herri mailan horrelakoen aldeko bulkada orokor baten barruan eta kanpaina zein giro orokorragoen barruan kokatzen dira tokiko ekimen zehatz horiek. Etorकिन

eta bertakoak hurbiltzeko guneak bihurtu ziren eskolak euskalduntzeko mugimenduak: ikastola sortzeko ekimenak, helduen euskalduntze mugimendua eta lantokietan gauzatutako ekimenen inguruan ere etorkinak eta bertakoak hurbildu ziren.

---

*Gau-eskolak sortu genituen eta orduan hor, 140 bat edo ibiliko ginen garai hartan. Hemen ingurukoak, erdaldunak, kanpotik etorriak, hor ibili ginen. Gero, gainera, koordinatzen nintzen, oraindik AEKrekin koordinatu behar izaten genuen. [...] Lehenbiziko urte horietan koordinatzen ginen eta bai, uste dut azkenean, AEK bezala, ez zen klandestino baina ia [...]. Eta horrela ibili ginen urte batzuetan. Hori aurrera joan zen, eta urte batzuetan mantendu genuen. Esan dizut, 150 edo izango ginen.*

C5

Euskararen garrantziaren inguruan kontzientzia hartze bat gertatzen da garai horretan. Euskaldunen artean, galtzeko arriskuan zegoenari eustea edota galdutakoa berreskuratzea zen sentimendu orokortua. Etorkin jatorriko biztanleen artean, bertako kulturara hurbiltzeko eta hau barneratzeko beharra inoiz baino indartsuago azaleratu zen. Eta horrek hurbilarazi zituen aipatutako ekimenetara. Aipatzekoa da euskararen aldeko mugimendua estuki lotuta hautematen dela euskal kulturaren eta identitatearen aldeko bulkadarekin, zein frankismo ostean gizartea berrasmatu eta eraldatzeko hainbat ekimen sozial eta politikorekin.

Elizak eta bere inguruko eragileek euskararen inguruan zuten jarrera eta ekarpenari dagokionez, aldaketa nabarmenak gertatu ziren XX. mendearen bigarren erdian. Altzan migrazio mugimendu handiak gertatu ziren urteetan Elizaren erreferentzialtasuna eta boterea oso handia zen. Frankismoaren urte gehienetan, gaztelaniaren aldeko indar gisa paper garrantzitsua jokatu zuen Altzan Elizak, bizilagunen gizarte-bizitzan eta harreman komunitarioetan funtsezko eragilea zen bitartean. 70eko hamarkadan zehar, euskararen aldera pixkanaka lerratzen joan zela esan daiteke, baina mugimenduok elizaren eragite gaitasuna galtzearekin batera eman ziren.

### 5.5.6 Hizkuntza-politikaz

Ikerketa honetan parte hartu duten etorkinek eta ondorengoek, neurri handi batean, egoki ikusten dute euskararen aldeko nolabaiteko hizkuntza-politika bat egin izana, eta, oro har, ulertzen dute euskara babestu eta sustatzeko neurriak ezartzea.

Eskolaren bitartez euskararen ezagutza zabaltzea eta lanpostuetarako euskara-eskakizunak definitzea ere, orokorrean onartzen dute. Badago eskakizun horiek handitzea proposatzen duenik ere.

Edonola ere, euskararen aldeko neurriak ezartzeko moduarekiko zalantzak edo kezkek ere agertzen dira. Inposaketaren arriskua ikusten dute eta saihestu beharrekotzat seinalatzen dute hainbatetan.

Hobeto beharrekoen artean, nabarmentzen da euskararen biziberritze prozesuaren inguruan informazio gehiago eta hobeto jaso behar luketela, eta, beraz, horretan huts egin dela baloratzen da. Esate baterako, iritzi diote ondo adierazi behar dela zein den lurraldeko egoera linguistikoa eta, zehazki, euskararen balioaren inguruan azalpenak eman behar zaizkiela. Hartu beharreko neurrien artean, hizkuntza eskakizun profil ofizialak ateratzeko beharrik ez duenari euskara ikasteko aukera eskaintzea berrindatu beharko litzatekeela.

Behin eta berriro agertzen den ideia nagusia da ikasi behar izanez gero aukera guztiak eskaini behar zaizkiela euskara ikasi nahi duten guztiei, eta prozesu hori doakoa izan behar duela beti; etorkinek berez nahiko lan izan ohi dute integrazio sozial eta ekonomikoa osatzeko, eta, iritzi diote, hizkuntza berria ikasteko kostua ezin dela euren gainean ezarri.

---

*Y yo lo que veo bien es que se aprenda euskera, pero si quieren que aprendamos el euskera, nosotros ya no, los que vienen, lo que no tenían que hacer es cobrarlo, las ikastolas, que lo den gratis. Que sí, si yo quiero aprender una cosa, por qué tengo que pagar, si me obligan: ahora obligan que aprendas euskera y tal y cual, pero si me obligan, por qué tengo que pagar. Que me lo den, que den una hora todos los días en las públicas o dos de euskera, y aprenderán todos los niños. Porque yo he tenido 5 hijos, y si los hubiese tenido que llevar a una ikastola, no comía, eee, y eso es la verdad.*

A7

---

Altzako euskaldunek nabarmentzen dute euskara berreskuratzeko egitasmoen izaera komunitarioak zerikusi handia izan zuela arrakastarekin eta hainbat sektore aktibatzearekin. Baina, aipatu ere, aipatu dute prozesuaren lidergoa administrazio publikoaren esku geratzean aurrerapauso eta lorpen esanguratsuak gertatu diren arren, desaktibazioa ere heldu dela. Herritarren aktibazio bideari heltzea berriro interesgarri dela diote, esate baterako, *Euskaraldia* bezalako ekimenak ondo ikusiak dira.

### 5.5.7 Gaur egungo egoera eta etorkizun ikuspegia

Gaur egun euskarak Altzan duen presentziaren inguruan etorkinek eta ondorengoek duten ikuspegia euskaldun jatorrikoena baino nabarmen baikorragoa da. Balorazio hori bakoitzaren hautemateen eta espektatiben arabera dela ikus liteke.

Etorkinek adierazten dute gaur egun eurak etorri zirenean baino gehiago hitz egiten dela euskara Altzan, batez ere, erakunde autonomikoen garapenarekin abian jarritako hizkuntza-politikaren ondorioz. Etorkizunari begira eskolaren eta bestelako hizkuntza-politikaren eraginez euskarak eremu berriak irabazi eta are gehiago erabiliko denaren konfiantza dute. Etorkizun argitsu horren irudia agertu izan da lehenago ere beste ikerketa batzuetan, eta, hala "arrosa koloreko etorkizuna" deitu izan diote Amorrortuk eta bestek (Amorrortu et al. 2009, 208).

---

*Pues yo me imagino que en 25 años todo el mundo hablara euskera, todo el mundo va a saber euskera, o sea igual no lo hablan pero todo el mundo va a saber euskera, en 25 años, todos. Porque ya los mayores se irán muriendo y se quedarán los jóvenes.*

B4

Bertako euskaldunen artean ordea, gehienek euskararen erabilera gaur egun oso baxua dela iritzi diote. Eskolaren eraginez euskaldundutako belaunaldietakoek erabiltzen ez dutelako kezka adierazten dute. Guraso euskaldunen kasuan ere, diote, euren artean gaztelaniaz egiten dutela haurrekin euskaraz egiten badute ere. Gainera, eskolan D eredura joaten direnen artean euskara-mailaren aldetik zalantzak dituzte. Aldi berean, gaur egun, ikastola barruan ere euskararen erabilerari eusteko nahiko lan dutela agertzen da (Altuna Zumeta eta Iñarra Arregi 2022). Kultura adierazpenetan ere duela urte batzuetatik hona euskararen presentzia ahuldu dela iritzi diote bertakoek, eta ekimen horietan etorkinen parte hartzea oso txikia izaten jarraitzen duela. Euskal Herriko leku askotan agertzen diren ikuspegiak dira, aipatutakoak.

---

*Ikusten da kanpoko jendeak ematen dituela seme-alabak [ikastolara]. Gero, kalean ez da ikusten. 40 urte inguruko jendea, Ikastolan ibilia da, berez badakite euskaraz, baina ez dute egiten. Badakit, Donostian ere ez dela askoz gehiago entzuten. Baina hemengoa... Hemen ditugun bizilagunek badakite, eta ikusten gaituzte gu beti euskaraz ari garela, eta aldamenetik pasatzen direnean, umeei euskaraz egiten diete, baina gero ez. Eta hori oso triste da. Eta tira, ez da agian kanpoko jendearen errua, hemen daudenak bikote gazte bat dira, eta biak euskaldunak dira. Orduan, ez da kanpoko jendearen errua.*

C3



Tristuraz bizi dute egoera hori bertako zenbaitek, batez ere euskararen biziberritzearen alde lanean jardun dutenek eta bestelako eszenatoki batera heltzeko espektatibak eraikita zituztenek. Kezka adierazten dutenek euskaraz egiten saiatzen dira Altzako elkarteetan, merkataritzan, ekitaldietan eta abar. Baina euskaraz dakitenak gutxiengoa dira eta euskararen erabilera mantentzeko zailtasun horrek nekea sortzen du.

---

*Baina oso nekagarria da hemen dagoen giroa. Koadrilakoak gara mantendu dugunak, 6 edo 8 [...] Orduan, mundu horretan ibilia naiz, baina oso nekagarria ikusten dut eta gero, 45 urteko jendea eta batzuk nik uste alfabetatuak egon behar luketela, ikasketetan ereduak ez dakit noiz jarri ziren, baina D ereduari atera behar izan dute... Orduan hori ikusita, erabilpena ikusten dut eta ez dakit zer esan ba...*

C5

Harrigarriki, denbora pasa ahala euskarak duela hamarkada batzuk berreskuraturako ospea neurri batean galtzen hasia dela susmatzen dute eta euskalduntzea administrazioaren eta eskolaren esku soilik geratu izanarekin lotuta hautematen da.

---

*Hori da. Gu eskolara joaten ginen klandestinoki, guk kontzientzia genuen, noski. Eta orain ez dago, ez horixe, oso gutxi. Eta gure semeak txikiak zirenean, guraso aldetik ere, esango nuke, kontzientzia gehiago zegoela. Ona da ikastea, baina, gehiagorik gabe...*

C3

Amaitzeko, azken urte eta hamarkadatan Altzara heldutako estatutik kanpoko etorkinen inguruko lehen iritzia ere eskatu zaie, lehen hurbilketa modura. Aipagarria da, migrazioa bi fenomeno horien artean parekotasun gutxi aurkitzen dituzte altzatarrek. Garai hartan auzo berriak eratzerainoko tamaina izan zuen mugimenduak eta gaur egun, ordea, auzo-dinamika baduten gunetara pixkanaka heldu den migrazio mugimenduez ari gara. Gainera, etorkinen eta ondorengoen artean, gaur egungo migranteekiko jarrera jatorrizko herrialdearen arabera dela ere ikus liteke. Alegia, kontuan izateko moduko iritzi edo aurreiritzi hierarkizatuak re garatu direla esan daiteke. Halere, migrante horiek euskararekiko duten harremanaz eta euren integrazio soziolinguistikoaz galdetzerakoan, ez da norabide bakarreko diskurtsoa nagusitzen: batzuek nabarmentzen dute migranteen seme-alabak bertako ikasle oro bezala euskara ikasten aritzen direla eta, hala integratuko direla bertan;

beste batzuek, berriz, euskararekiko inolako harremanik ez dutela ere adierazten dute, eta horretan jartzen dute indarra.

Laburbilduz, euskarara hurbiltzea nahi izatekotan informazioa banatu eta euskalduntze-ekimenetara erakartzeko neurriak indarrean jarri beharra agerian jartzen dute.

## 6 ONDORIOAK ETA ZENBAIT IRAKASPEN

Dokumentu honen sarreran esan den bezala, ikerketaren helburua honela definitu da:

- 1950-1970 urte inguruan Espainiako Estatuko beste lurralde batzuetatik Donostiako Ekialdeko barrutira bizi izatera etorritakoen hizkuntza-espereziak ezagutzea, eta, zehazki, Altzako biztanleriaren bizipenak, iritziak eta jarrerak aztertzea.
- Ezagutza horrek gaur egungo migrazioetan euskararen presentzia handitzeko izan dezakeen aplikazioa aztertzea.

Aipatu dugu lehenago, helburu horiek erdiesteko eta immigrazio-biztanleriaren bizipenak ulertzeko beharrezkoa izan dela euren integrazio soziolinguistikoa aztertzea, marko teoriko horrek biztanleria etorri berria eta bertakoen arteko interakzioak hobeto azaltzen laguntzen duelako. Horrez gain, euskararen biziberritze-prozesuak harreman horietan izan duen presentzia ezagutzeak eta batzuegan eta besteengan izan dituen eraginak analisisetan integratzeak laguntzen du gaur egungo immigrazio-fenomenoa ere ikuspegi soziolinguistikoko horretatik aztertzen.

Ondorengo lerrootan, azterketak erakutsi dituen zenbait ondorio aurkeztuko ditugu. Kontuan izan behar da fenomenoa oso konplexua dela eta, beraz, hemen laburbiltzen ditugun hauek testuinguru bereziki zabalago batean kokatu behar direla. Eta, ondoren, gaur egungo immigrazioaren aurrean kudeaketa egokiari begira lagungarri izan daitezkeen zenbait gako ere, eskainiko dira.

## 6.1 ZENBAIT ONDORIO ALTZAKO 1950-1970EKO MIGRAZIOAZ

- **Ikuspegi soziologiko batetik begiratuta esan daiteke aztertutako migrazio-prozesuaren abiapuntuan, etorkinek eta harrera-gizarteko biztanleek zituzten ezaugarri ekonomiko eta sozialak ez zirela hain desberdinak.** Esate baterako, euren pertzepziotik, Altzako biztanleak ez ziren ekonomikoki ahalmen askoz handiagokoak eta harreman ekonomiko garrantzitsuenak auzotik gaindi zeudenak ziren. Bertakoek uste dute, neurri batean behintzat, etorri berriak egoera ekonomiko gogorragoan bizi zirela.
- **Etorri berrien eta bertakoen artean lehen urteetan sorturiko harremanak oso azalekoak izan ziren,** are gehiago, bazterrekoak, jasotako lekukotasunen arabera.
- **Urte gutxitan gauzatu zen immigrazioaren dimentsio demografiko handiak euskararen bizitasun etnolinguistikoaren baitan eragindako higadura handia izan zen.** Hizkuntza-komunitate minorizatuaren bizindar etnolinguistikoaren ikuspegitik begiratuta, ez da ahaztu behar etorkinek eta bertakoek hizkuntza hegemonikoa partekatzen zutela lehen harremanak eraiki zirenean. Gainera, harrera-gizartean, eremu publiko eta ofizialetako esparru guztietan gaztelaniaren nagusitasuna erabatekoa zen eta bertako hizkuntza gutxituaren bizindarra higatzen hasia zegoen lehenagotik, hain zuzen, estatus ofizialaren gabeziaren eta komunitate modura bizitako erresioaren eraginez, besteak beste.
- **Etorkinen hizkuntza-errepertorioan gaztelania nagusi zen. Baina Galiziatik etorritako migratzaile-kopurua handia galegoa hitz egiten zuela heldu zen Altzara.** Euskarak eta galegoak ezaugarri soziolinguistiko desberdinak zituzten arren, bi hizkuntzek jatorrian partekatzen zuten minorizazio-egoerak moldatu zuen, neurri batean, harrera-gizartean gertaturiko integrazio soziolinguistikoaren izaera. Kasu batzuetan, euren jatorrizko hizkuntza normaltasunez erabiltzen eta transmititzen zuten, eta beste batzuetan albo batera utzi zuten, estigmatizazioak eta auto-gorrotoak eraginda. Baina zenbaitetan, hizkuntza minorizatuaren izaerak lagundu zuen harremanak leunak eta errespetuzkoak izan zitezen.

- **Altzara etorritako etorkinak elkarrekin sortutako babes eta elkartasun sareei esker moldatu ziren *bizirauteko integrazio prozesua lehenbailehen osatzeko*, bertan lekutzeko; izan ere, etorkinen integrazio sozialaren lehen urratsa harrera-gizartean oinarritzko bizi-baldintzak asetzea da: ostatua, enplegua, eguneroko beharrak...**
- **Euskararen ospea gaztelaniarekin alderatuta bazterrekoa zen aztertutako migrazio-garaian.** Zenbait kasutan, euskararen ospe ezak lotsa sentiarazi zien euskaldunei, edo baztertuak sentitu izan ziren euskal hitzun modura edo euskaldun gisa. Horrek hizkuntzaren ordezkatzeko prozesuetan hain ezaguna den giro sozial zurruna eragin zuen, eta euskararen transmisioa zenbait familiatan etetera eraman zuen, seme-alabek gaztelaniaz ahalik eta azkarren eta hobekien hitz egin zezaten; esan gabe doa, prozesu horrek hizkuntzaren ordezkatzeko-prozesua bizkortu zuela.
- **Etorkinek ez dute oztoporik izan hizkuntzaren aldetik. Alde batetik, harrera-gizarteko hizkuntza hegemonikoa menderatzen zutelako, eta, bestetik, euskararen beharrik ez zutelako izan.** Lehen momentutik bertatik, etorkinen eta bertakoen artean elkartasunezko keinuak egon ziren arren, *bi mundutan* bizi zirela, alegia, elkarrekin harreman gutxi zuten bereizitako komunitateetan. Ideia hori sarri agertzen da etorkinen lekukotasunetan zein bertakoenetan ere.
- **Etorkinek izan zuten lan-integrazioa, oro har, positiboki baloratu dute. Arrakastatsua izan zenaren pertzepzioa dute;** izan ere, lan-eskaintza esanguratsuekin topo egin zuten eta ez zuten arazorik izan, behintzat 80. hamarkada arte. Ikuspegi soziolinguistikotik begiratuta, ordea, hain zuzen lan-munduan euskara ez zelako beharrezkoa, migratzaileen integrazio soziolinguistikoa oso ahula izan zen. ikuspegi horretatik begiratuta, harrera-gizartean bi hizkuntza egoteak ez zien oztoporik jarri etorkinei integrazio laboralerako.
- **Integrazio sozialari dagokionean, etorkinen arteko harremanetan gauzatu zen sozializazio-prozesua harrera-gizartean, haserako urteetan behintzat.** Sozialki aurrera egin zuten euskaldunekin harremanak izan behar handiegirik gabe, gehienetan bertako biztanleekin apenas

kontakturik gabe. Bertakoak ez-ikusiak sentitu ziren sarri, eta ezkortasunetik begiratu zieten etorkinei, zenbaitetan. Ikuspegi linguistikotik, lan-integrazioan gertatu zen bezalatsu, azpimarragarria da integrazio sozialerako ere, hizkuntza minorizatua egoteak ez ziela oztoporik ezarri.

- **Integrazio kulturalaren aldetik, jatorriarekiko eta harrera-gizartearekiko harreman afektibo eta identitario oso desberdinak agertzen dira etorkinek eta euren ondorengo sektoreetan.** Lehen belaunaldiko gehienek sentimendu *positiboak* gordetzen dituzte euren jatorriarekiko. Alegia, sendo mantentzen dute jatorriko identitatea. Baina, oro har, bigarren belaunaldikoek harrera-gizartearen integrazio kulturalak indarra hartzarekin batera, identitate bereziak garatzen dituzte. Batzuek “ez hango eta ez hemengo” izatearen kontzientzia *kontrajarriak* erakutsi dituzte, eta, baina anbigutasun sentimendu horren aurrean ez dute atsekaberik adierazten; migratzearen ezaugarri bat modura gehiago dela adierazten dute. Beste batzuek, ordea, sentimendu *ezkorrak* erakusten dituzte: jatorria atzean lehenbailehen utzi nahi esplizitua izan dutela adierazten dute, harrera-gizartearen lasterrago integratzea ahalbidetuko zuelakoan. Azkenik, badira beste batzuk azpimarratzen dutenak bertako kulturara eta hizkuntzara hurbiltzeko beharra izan dutela, benetan integratuak sentitzeko, batez ere, bigarren belaunaldikoen artean.
- **Euskarari balio instrumentala aitortu diote Altzan kokatutako etorkinek, laster ikusi zuten euren seme-alabentzat etorkizuneko gizartearen aurrera egiteko giltza izango zela euskaraz hitz egiten jakitea,** hobeto kokatzen lagunduko zien elementua. Etorikin helduek, ordea, ez zioten balio instrumental hori aitortu euskarari. Ez behintzat euskara ikasteko urrats praktikoa ematera bultzatzeko adinakoa. Alegia, abian jarritako hizkuntza-politikek ez zieten zuzenean eragin haiei, ondorengoei bezala: lan-munduan ez zuten euskararen behar hori izan eta, are gutxiago, euren auzoan sozialki erabat integratuta sentitzeko.
- **Trantsizio-garaiko euskararen aldeko mugimendu sozialen eta ondorengo hizkuntza-politikaren (1982tik aurrera) ondorioz, gizarte aldaketa giroak euskararen biziberritzean ere aktibazioa eragin zuen eta euskararen aldeko mezuak arrastoa utzi zuen biztanleriarengan.**

- **Euskararen balio integratzailea euskararen ospearen berreskuratzearekin hasi zen. Eta hori erabakigarria izan zen etorkinen eta bertakoen artean zubiak eraikitzeko. "Bi munduen" arteko hurbilketa alde kulturaletik eta sozialetik abiatu zen, politikotik baino gehiago.** Euskararen aldeko aktibazio-aukerak eta -modu berriak atzean utzi nahi zen mundu zaharra (diktadura, pobrezia, erlijio-arauak...) ordezkatzeko bokazioz garatu ziren (askatasun politikoa, bertako nortasuna, eraldaketa soziala helburu) eta, hala, euskararen munduan txertatzeko erabakia hartzera mugitu zituen hiritar asko, horien artean etorkinak eta horien seme-alabak. Ezaugarri sozialeko kultura-adierazpenek (musika, literatura, bertsoak edo bestelako herri-ekimenak) izan zuten leku garrantzizkoa euskarara hurbildu ziren etorkinengan. Era berean, euskarak nolabaiteko **balio sinbolikoa ere bereganatu zuen**, eta etorkinengan izan zuen isla, esate baterako, seme-alabei euskarazko izenak ezarriz edo agurhitzen erabileran normalizatu zen.
- **Hizkuntza-gatazkaren inguruan, etorkinen eta bertako euskaldunen artean konfrontazio-maila bat gertatu da, baina gehienek ez dute gatazka esanguratsu modura bizi izan.** Euskaldunek euskaraz hitz egitea ulertzen ez dutenak inguruan daudenean eraso modura bizi dute zenbait etorkinek, elkarrizketatik kanpo sentitzen direlako; baztertuak, deseroso. Errespetu falta bezala definitzen dute egoera. Beste batzuek, ordea, ez dute gatazkatsutzat ikusi egoera. Nolanahi ere, oro har, euskaldunek erdaldunekin daudenean gaztelania erabiltzen dutela nabarmentzen da. Horri lotuta, beti euskara alde batera utzi eta gaztelaniaz egin beharra modu traumatikoan bizi izan duenik ere bada. Errespetuaren eta heziketa onaren izenean gehiegi galdu izanaren bizipena badago.
- **Lehen belaunaldiko etorkinek pentsatzen dute haurrak eta gazteak euskalduntzeko funtzioa eskolak izan duela,** eta arrakasta gisa bizi dute etorkinen seme-alaba guztiak edo gehienak euskalduntzea. Helduen artean, euskaltegiek izandako funtzioa azpimarratu da, etorkinen artean jende asko aritu baita bertan ikasten. Altzako bititza sozialean sendo txertatutako erakundea izan dela nabarmendu da.

- **Etorkinek ikusten dute euskarara hurbiltzearen onura, baina ikasteko-prozesuak denbora eta ardura handia eskatzen dituela uste dute.** Lehen belaunaldikoek ezin izan diote eskaini beharrezkoa zen tarte hori, baina itxaropena dute ondorengo belaunaldikoek euskaraz hitz egiten ondo ikasiko dutela. Baina, prozesua hobetu beharra ere azpimarratzen dute, batez ere irakasteko metodologiari dagokionean eta doakotasuna aldarrikatuz. Aldi berean adierazten dute ezinbestekoa dela ikasketa-prozesuan integratuta, ikasitakoa erabiltzeko aukera gehiago eskaintzea.
- **Euskara ikasi duten etorkinek euskaldunen aldetik izandako zenbait jarrera baztertzaileretik kexu dira** Ikasketa prozesuan jarrera *zigortzaileak* topatu dituzte: euskaldunen begietara etorkin izatearen zamarekin jarraitzea, euskararen ikasketa-prozesuan lagungarri ez diren jarrerak hautematea, edo *euskaldun berri* kategoria betikotzea nekagarria eta gogaikarria zaie eta saihestea aldarrikatzen dute.
- **Etorkinek eta ondorengoek egoki ikusi dute euskararen aldeko hizkuntza-politika bat egin izana, eta, oro har, ulertzen dute euskara babesteko eta sustatzeko neurriak ezartzea.** Eskolaren bitartez euskararen ezagutza zabaltzea eta lanpostuetarako euskara-eskakizunak definitzea ere, orokorrean onartzen dute. Ikerketa honetan, ez dira nabarmendu euskararen biziberritze-politiken kontrako jarrerak, nahiz eta, zenbaitek hizkuntza-politikaren zenbait alorretan euskararen inposaketaren arriskua ere ikusten duten.
- **Etorkinak erabateko ezjakintasunetik abiatuta joan dira euskararekiko harremana eraikitzen.** Etorritakoak zein bertakoak ados daude esatean migrazioaren hasierako garaietan etorkinei ez zitzaiela euskararen presentziaren berri eman; are gutxiago hizkuntza irakatsi edo euskarara hurbiltzeko aukerak eskaini.. Nabarmentzen dute euskararen biziberritze prozesuaren inguruan informazio gehiago eta hobeto jaso behar luketela.
- **Euskaraz ikasi behar eta nahi duenari aukera guztiak erraztu behar zaizkiola esatean adostasuna dago.** Prozesu hori doakoa izan behar dela beti; etorkinek berez nahiko lan izan ohi dute integrazio sozial eta ekonomikoa



osatzeko, eta hizkuntza berria ikasteko kostua ezin dela euren gainean ezarri diote. Bidegabekotzat dute euskara ikasteko ordaindu behar izatea.

## 6.2 GAUR EGUNGO IMMIGRAZIOAREN AURREAN ZENBAIT IRAKASPEN

Gaur egungo migrazioa XX. mendeko erdialdetik aurrera gertatu zenaren testuinguru soziolinguistiko desberdinean gertatzen ari da. Migrazio-biztanleriak jatorriz ezaugarri ekonomiko eta sozial konplexuagoak ditu, eta ikuspegi linguistikotik aurrekoarekin alderatuz, desberdintasun nabarmenak erakusten dituzte. Alde batetik, jatorriko estatuen kopuru handiak harrera-lurraldean inoiz ezagutu gabeko hizkuntza-aniztasunaren aurrean kokatzen du bertako gizartea. Eta, bestalde, hizkuntza-aniztasun horren baitan etorkinen ia erdiak hizkuntza hegemonikoa den gaztelania hitz egiten du jatorritik; gehienetan modu elebakarrean. Kontuan izatekoa da ezaugarri horrek indartu dezakeela gaztelaniaren aldeko joera. Gaztelania hitz horien artean, bada gutxiengo bat Amerikako tokian tokiko beste hizkuntza batzuk ere hitz egiten dituen<sup>6</sup>. Egoera horietan, gainerako hizkuntza minorizatua dutenen kasuetan bezala, ezinbestekoa izango da arreta bereziarekin lantzea. Abiapuntutik, beraz, garrantzizkoa izango da biztanleriaren errepertorio linguistikoaren eta bertako egoeraren berri emateko moduak ziurtatzea, euskararekiko jarrera ezkorrak saihestekotan.

Integrazio soziolinguistikoari dagokionean kontuan izan behar da gaur egungo migratzaileen artean, aniztasun handiagoa aurreikus daitekeela. Jatorriko gizarteko sareen sendotasunagatik kasu batzuetan, edo horien gabeziarengatik, besteetan badirudi, etorkin guztiek ez dutela *bizirauteko integrazioa* osatzeko baliabideak eskuratzeko ziurtasunik. Beraz, alderdi horri erreparatu beharko zaio lehenik, integrazioaren hurrengo urratsak abian jartzeko.

Hizkuntza-errepertorioaren aldetik ere, arestian esan bezala, konplexutasun handiagoko migrazioa da gaur egungoa. Nolanahi ere, interesgarria izan daiteke

---

<sup>6</sup> Jatorri atzerritarreko biztanleriaren hizkuntza-aniztasunaren inguruko datuak kontsulta daiteke Soziolinguistika Klusterra azken urteetan egiten ari den lana (Aierdi et al. 2020) , eta baita, dagoeneko, euskararen inguruan horietako batzuk dituzten jarreraren inguruko lana ere (Uranga eta Aierdi 2021)

etorkinen eta harrera-gizartearen arteko distantziak laburtzeko moduak eta aukerak aztertzea eta, gutxienez, esperientziak partekatzeko guneak sortzea, hain zuzen, zaugarritasunaren aurrean gizarteak, eta, bereziki, ardura publikoak hartu behar erantzukizunaren izenean.

Bestalde, integrazio laborala eta soziala lortzeko etorkin askok bizi duten prozesua zailtasunez beterikoa da, gaur egun<sup>7</sup>. Baina egungo migratzaileen kasuan agerian geratzen ari da gai bereziki garrantzizkoa dela etorkinen eta bertakoen arteko harremanetan sakontzea, gizarte integratu bat osatzea helburu bada. Izan ere, elkarren arteko interakzioko guneak eta uneak sortzea ezinbestekoa da *bi munduen* egoera saihesteko eta hurbilketa gerta dadin. Integrazio sozialerako modu bakarra dela erakutsi dute beste ikerketa batzuek lehenago ere (Uranga eta Aierdi 2021).

Oso kontuan izatekoa da, gainera, ikerketa honetan parte hartu duten etorkinen artean jatorriarekiko erakutsi dituzten sentimendu kontrajarri horiek presente egon daitezkeela gaur egungo etorkinen artean ere. Alde batetik, harrera-gizarteak jatorriko kultura eta hizkuntzarekiko dituen jarreraren baldintzatuko dute bertako moldaketa. Garrantzitsua litzateke aitortza esplizitua egitea. Baina, era beran, gerta daiteke zenbait etorkinek jatorriarekiko urrundu nahi izatea, harrera-gizartean ahalik eta azkarren integratzeko, alegia, etorkina izateari utzi eta bertakoa izateko. Joera horiek aldi berean agertu daitezkeenez, ardura publikotik hurbilketa egiteko moduetan ezinbestekoa izango da sentiberatasun finena erakustea.

Integrazio kulturala gerta dadin bertako kulturarako irisgarritasuna erraztu eta sendotu beharra ere kontuan hartzekoa da. Kasu honetan, bi norabideko kanalak erabiltzea ezinbestekoa izango da kultura eta hizkuntza artekotasunaren ikuspegitik, joan etorriko zubiak eraikitzeko.

Egungo migrazioa, gainera, testuinguru soziolinguistikoko desberdin batean kokatzen da, izan ere, euskara hizkuntza minorizatua izaten jarraitzen duen arren, biziberritze-prozesuan murgilduta dago. Horrek baldintza oso desberdinetan kokatzen du etorkin berria. Euskararen ospea aldatu da, neurri batean, eta ondorioz, transmisioaren etena gelditu da, eskolak hizkuntzaren transmisio sozialerako tresnak dira eta

---

<sup>7</sup> Ikerketa honen lan-esparrutik kanpo dagoen arren, interesa duen edonork kontsulta ditzake Ikuspegik Euskal Immigrazioko Behatokiak aldian-aldian egiten dituen ikerketak.

euskarak presentzia irabazi du, neurri batean. Testuinguru horretan, migrazio berriak bertako hizkuntza-aniztasunaz zer pertzepzio izango duen argitzea eta nola eragingo duen haren integrazio-prozesuetan erronka nagusienetakoa izango da.

Euskararen balioen inguruan gaur egungo migratzaileen artean, ikerketan agertu diren euskararen inguruko balio berberak erreproduzitzeko aukerak -edo arriskuak- daudela esan daiteke. Espero daiteke etorkinek euskarari balio instrumentala aitortzea euren haurrentzat. Gaur egungo giro sozial eta politikoak hala egitea sustatzen dutelako, seme-alabek eskolan ikastea ongi ikusiko dutela pentsa daiteke, neurri batean behintzat.

Baina, Altzako migrazioa gertatu zenean bezala, aurreikus daiteke gaur egungo etorkin helduek euskara ikasteko behar adinako dedikazioa eskaintzeko zailtasunak izango dituztela, gutxienez gaur egun eskaintzen diren ikasteko moduetan. Hemen egon daiteke hobetzeko tarte handia: ikasteko eskaintza-moldeetan, metodologian, helburuen moldaketetan eta, baliabideen hornitzean. Baina, ezinbestean, erdiguneko heldulekua izan beharko luke migratzaileekin motibazio kulturalaren lanketa.

Nolanahi ere, lehen gertatu bezala, hizkuntza-gatazkak aurreikus daitezke. Alde batetik, jarrera desberdinak garatuko daitezke jatorriz gaztelania ezagutzearen arabera. Alegia, hizkuntza hegemonikoaren ezagutzak sor dezake hizkuntza minorizatua baliorik gabekotzat ikustea eta, hala, ikasi beharra alferreko lana izatearen bizipen subjektiboa. Informaziorako, azalpenetarako eta hurbilpenerako kanal indartsuak indarrean jarri beharko dira, hori saihestu nahi bada. Gaztelania hizkuntza komuntzat hartzen badute, eta ideologia hori gailentzen bada zaila izango da bestelako politikak diseinatzea.

---

## ERANSKINA. ELKARRIZKETARAKO GIDOIAK

### 1. Migrazio prozesuaren abiapuntua

1. **Iritsiera** (norberarena edota ingurukoena) (1950-1975):
  - **Arrazoiak:** Zergatik abiatu egin? Zergatik hona?
    - Espektatibak, zer espero zuten (Bete ziren?)
  - **Zer baldintzatan** iritsi ziren,
    - Bakarrik? Familiarekin? Beste norbaitekin?
    - Zuzenean Donostiara? Auzora? Zer zekiten Donostiari buruz? Euskal Herriari buruz? Nondik informazioa?
    - Bidaia eta lana aurretik lotuta? Zein saretan? Aurretik etorritakoak? Enpresak?
  - **Nolako egoera** aurkitu zuten. Jaso duten informazioa
    - nola/noiz jaso duten,
    - informazio horrek zein pentsamendu/sentimendu sortu dizkieten (esperientzia, biografia)
    - Ekonomiko-soziala: Lana, kontratuak, lan-baldintzak
    - Etxebizitza nola lortu?
    - Harreman sarea: hango herrikideak, hemengoak, beste etorkin batzuk...
    - Auzoa (espazioa), fisikoa,
    - Giroa, sozializatzeko aukerak, denbora/espazioa (auzokoekiko harremanak, kultura, jaiak, eliza...),
    - Zerbitzuak: udala, medikuak...
  - **Bizibidea:**
  - Lana: -aurretik lotua?
    - Baldintzak (soldatak, ordutegiak...)
    - Ibilbidea: langabezia tarteak, lan aldaketak...

### 2. **Euskal gizartea:** kultura

- Jaso duten informazioa
  - nola/noiz jaso duten,
  - informazio horrek zein pentsamendu/sentimendu sortu dizkieten
  - haien esperientzia, biografia zein den

- Kultura, ohitura, antzeko identitatea? Mundu sinbolikoaren kontrastea (pertzepzioa, ondorioak...), zer den "vascoa" izatea.
- Berdintasuna, desberdintasunaren inpresioa. Ustekabea? Zein sentimendu sortu ziren?
- Norberarena uzteko presioak? Noiz lortzen dute bertako sentimendua garatzea?
- **Bertakoekin harremanak:**
  - Ofizialekin (udala, lantegia zerbitzuak)
  - Parekoekin (lagunak, lankideak, auzoan, langileak)
  - Giro sozialean, politikoan, sindikalean, elkarteak...
  - Kultura adierazpenak, festak,

### 3. Euskararekiko harremana

- Jaso duten informazioa
  - nola/noiz jaso duten,
  - informazio horrek zein pentsamendu/sentimendu sortu dizkieten
  - haien esperientzia, biografia zein den
- Aurkitu zuten hizkuntza egoera
  - Zer nolako presentzia zuen euskarak
  - Erabilera orokorra, ezagutza orokorra, jarrerak
  - Zer harreman euskaldunekin?
- Zer harreman euskaldunekin?
- Zer jarrera hartu zuten euskararekiko eta euskal munduarekiko?
  - Euskal kulturako zer elementu aurkitu zituzten
  - Zenbateraino zekiten ezer?

### 4. Ondorengo urteak (frankismoa eta gero?):

2. Jaso duten informazioa
  - i. nola/noiz jaso duten,
  - ii. informazio horrek zein pentsamendu/sentimendu sortu dizkieten
  - iii. haien esperientzia (bertakokoekin kontrastean) , biografia zein den
3. **Nola/noiz aldatzen joan zen egoera sozioekonomiko eta politikoa;**
  1. Kanpoko egoeraren arabera (Espainiako eta EAeko bilakaera politikoaren arabera), gatazka politikoa....
  2. Familiaren bilakaeraren arabera (seme-alabak)
  3. Egoera sozio-ekonomikoaren bilakaera (bertakoekin kontrastean)

4. Heziketa mailaren kontzientzia (bertakoekin kontrastean)
5. Hurbiltze/posizionamendu ideologikoa, politikoa.
4. **Euskararekiko harremana** (eskola, presentzia, jarrerak, harreman sozialak, hizkuntza politikak...)
  1. Zer lotura jatorriarekin?
  2. Jatorrizko herrira "pueblora" sarritan?
  3. Jubilatuta hara?
  4. Etxerik bai han?
  5. Zenbaterainoko integrazioa? Nola definitzen duten integrazioa. Aldaketarik hasierako nahi/espektatibetan, handik 30 urte pasatzean?
  6. Seme-alabek sentimendu/pentsamendu bera dutela pentsatzen dute?
  7. Etorkin berriekiko harremanak?
5. **Aurrera begirakoak:**
  1. nola ikusten duten etorkizuneko hizkuntza egoera (senitartean, auzoan, migratzaile berrien artean...)
  2. zer egin daitekeen ahalik eta onena izan dadin
  6. **Bertakoekin** ere gai multzo antzekoak landu dira. Hona hemen zerrenda:
    2. **iritsiera (1950-75):**
      1. nola bizi izan zuten auzoaren aldaketa,
      2. zer egoeratan iritsi ziren,
      3. nolakoa zen auzoko bizitza,
      4. zer harreman izan zuten iritsi berriekin,
      5. hizkuntzarekiko harremana
        - bizi zuten hizkuntza egoera,
        - zer jarrera zen nagusi euskararekiko,
        - zer-nolako presentzia zuen euskarak...
      3. **ondorengo urteak** (frankismoa eta gero):
        1. nola joan zen aldatuz goera sozioekonomiko eta politikoa;
        2. euskararekiko harremana (eskola, presentzia, jarrerak, harreman sozialak, hizkuntza politikak...)
      4. **aurrera begirakoak:**
        1. nola ikusten duten etorkizuneko hizkuntza egoera (senitartean, auzoan, migratzaile berrien artean...) zer egin daitekeen ahalik eta onena izan dadin?

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Abercrombie, Nicholas, Stephen Hill, eta Bryan S. Turner. 1986. *Diccionario de Sociología*. Madrid: Cátedra.
- Aierdi Urza, Xabier. 2000. «La inmigración española a Euskal Herria». *Euskonews&Media* 101. <https://www.euskonews.eus/0101zkb/gaia10101es.html>.
- Altuna Ramírez, Jaime, eta Jone M. Hernández García. 2018. «%2,7a Euskara, generoaz mintzo?» *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 115–44.
- Altuna Zumeta, Olatz, eta Maialen Iñarra Arregi. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Txosten teknikoa*. Soziolinguistika Klusterra.
- Amorrortu, Esti, Ane Ortega, Itziar Idiazabal, eta Andoni Barreña. 2009. *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Barandiaran, Bixente. 1988. «Orain berrogeitamar urte». In . Donostia: Altzako Historia Mintegia.
- Barriga, Holger R. 2015. «Las Hipótesis de Investigación Cuantitativas y Cualitativas en las Ciencias Sociales». *FENopina* 79.
- Bujan Vidales, Karmele. 2001. «Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lanetan». *Revista de Psicodidáctica* 11–12: 133–42.
- Cañamero Redondo, Antonio. 1988a. «Algunos aspectos del desarrollo urbano y demográfico de Alza». In *Alza hautsa kenduz*, 1:55–71. Alza, Donostia: Altzako Historia Mintegia. <https://www.altzanet.eus/pdf/altzahk/ahk01/05-Canamero.pdf?type=file>.
- . 1988b. «El Euskera en Alza (1981)». In . Altzako Historia Mintegia.
- Giles, H, R.Y. Bourhis, Taylor, D.M., eta Relations». 1977. «"Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations"». *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348).
- Guerra Garrido, Raul. 2019. *Cacereño*. 2. arg. Akal.
- Hernández García, Jone M. 2010. «Hizkuntza aztergai: Ikerketa-metodoetara oinarritzko hurbilpena». In *Soziolinguistika eskuliburua*, -(e)k argitaratua

- Arkaitz Zarraga, 285–348. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritza.
- Hernando Pérez, Josu. 2018. «Immigrazioa Gipuzkoan frankismoaren garaian». In *Gipuzkoa, immigrazioa eta integrazioa. Barne-migrazioak eta horiek Gipuzkoari egin zioten ekarpena (1950-1975)*, 149–83. Fundación Ramón Rubial/Ramón Rubial Fundazioa.
- Iraola, Iker, Txoli Mateos, eta Julen Zabalo. 2011. «Discursos sobre la integración La inmigración al País Vasco en los años 1950-1970». *RIPS* 10–3: 115–30.
- Izaola, Amaia, eta Imanol Zubero. 2018. «Barne-migrazioak eta horiek Gipuzkoari egin zioten ekarpena (1950-1975). Sistematizazioa eta eguneraketa». In *Gipuzkoa, immigrazioa eta integrazioa. Barne-migrazioak eta horiek Gipuzkoari egin zioten ekarpena (1950-1975)*, 15–146. Fundación Ramón Rubial/Ramón Rubial Fundazioa.
- Luke, Melissa, eta Kristopher Goodrich. 2019. «Focus Group Research: An Intentional Strategy for Applied Group Research?» *The Journal for Specialists in Group Work* 44, 2: 77–81.
- Maia Soria, Jon. 2005. *Riomundo*. Tafalla: Txalaparta.
- Mayan, Maria J. 2009. *Essentials on Qualitative Inquiry*. Walnut Creek: Left Coast Inc.
- Mejía Navarrete, Julio. 2000. «El muestreo en la investigación cualitativa». *Investigaciones sociales* 165-180. 4(5): 165–80.
- Moreno Fernández, Francisco. 2009. «Integración sociolingüística en contextos de inmigración: marco epistemológico para su estudio en España». *Lengua y migración* 1:1: 121–56.
- Ortega, Ane, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, eta Jacqueline Urla. 2016. *Euskal hiztun berriak. esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Potts, Karen, eta Leslie Brown. 2005. «“Becoming an anti-oppressive researcher”». In *Research As Resistance Critical, Indigenous, and Anti-Oppressive Approaches*, Canadian Scholars’ Press, 255-286. Toronto: Brown, L. A. eta Strega, S. (eds.).
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio, eta Cristina Blanco. 1994. *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*. Bilbo: Universidad de Deusto.



- Silva-Corvalán, Carmen. 2001. *Sociolingüística y pragmática del español*. Washington: Georgetown University Press.
- Uranga, Belen, eta Xabier Aierdi. 2021. «Jatorri atzerritarreko biztanleen hizkuntzak, hizkuntza-bizipenak eta -jarrerak Gipuzkoan». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 119: 59–84.
- Zabalo, Julen, Ilune Basterra, Iker Iraola, eta Txoli Mateos. 2010a. «1950-1980ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian». *Jakin* 180: 11–34.
- . 2010b. *Etorkinak eta integrazioa. 50-80 hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego euskal Herrian*. GITE-IPES Julio Araluze Beka 2009.